

# AIARALDEA hemen



## Udaberria dantzan

AIARALDEA JAİETAN



## Otxomaio 2026

MAİATZAREN 7TIK 17RA

PAELLA ETA TORTILLA TXAPELKETA · BIGANTXAK · ERROMERIAK  
KAPARRAK · KALE DINAMIZAZIOAK · DANTZALDIAK · PILOTA  
PARTIDAK · PURO RELAJO · PUZGARRIAK · GWAYA REGGAE  
DJak eta ORKESTRAK · AURRESKU ETA SUELTO LEHIAKETA  
BARRAKAK eta askoz gehiago!



İKUSI EGİTARAU  
OSOA HEMEN



# Herriz herri

Aiaraldea

## Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak 22 aldiz atera zuen “errotuladore gorria” iaz hizkuntza eskubideen urraketen aurrean

2025ean eskualdean egondako hizkuntza eskubideen urraketak aletzen dituen txostena plazaratu du euskararen normalizazioaren alde lan egiten duen entitateak. Kartelen hizkuntzarekin lotutako salaketak dira gehienak.



Euskalgintza Kontseiluko kide bat iazko Aiaraldeko Euskararen Egunean. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua  
**Maider Ramirez Martin**

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak (AIEKE) Hizkuntza eskubideen urraketa eta tratu txarrak Aiaraldean 2025 txostena plazaratu du. Dokumentu horretan bildu ditu iazko urtean zehar herritarrengandik jasotako kezak zein elkarteak berak identifikatutakoak, kronologikoki antolatuta. 2023an abiatu zuen euskararen normalizazioaren aldeko entitateak Errotuladore Gorria ekimena. Herritarrek bizi edo identifikatzen dituzten hizkuntza eskubideen urraketak edo tratu txarrak jakinarazi ditzakete tresna horren bidez.

Kontseiluak jakitera eman duenez, jasotako salaketa gehienak paisaia linguistikoa osatzen duten euskarrietan (afixak, eskuo-

rri edo seinaleak, esaterako) euskarak duen presentziari lotutakoak dira, izan akatsak daudelako, presentzia txikia delako edo zuzenean erdara hutsez daudelako.

Identifikatutako en artean dago, besteak beste, Hauxe da Amurrioko udal aldizkaria, zein euskararen %35ean baino ez den agertzen gaztelaniaren aurrean eta “maiz akats nabarmenak” dakartzan. Urduñan jarritako seinale batean euskarazko testua okerra dela ere ohartarazi dute, “Urduñak ez du eraso sexistarikonartzen” behar zuten lekuan “Urduak” jartzen baitu. Horrez gain, Urduñako zein Okondoko udaletako komunikazio banatan egondako akatsak ere eman dituzte aditzera.

Era berean, euskararen presentzia txikia edo hutsala di-

tuzten kartelak. Horrelako hiru ikusi dituzte Amurrión eta beste hiru Urduñan eta bana Laudion, Orozkon eta Aiaran. Urduñan topatutako horietako bat hirian egindako city cross ekintzarena da, eta Kontseiluak nabarmendu du berria zabaltzean antolatzaileak elkartearekin jarri zirela harremanetan eta euskarazko kartela zabaldu zutela.

Antzeko kasua da Laudioko Alzarrate futbol taldearena, zeina gaztelaniazko kartelaren ondoan euskarazko ere plazaratu eta zabaldu zuen. Zentzu horretan, Kontseiluak azaldu du kartelak egiterakoan badaudela “praktika txar” batzuk, hala nola euskararen aurretik erdara nabarmen zea eta kartel beraren bi bertsio egitea. Azken kasu horretan “askotan erdara hutsekoak lortzen baitu zabalkunde-

ta euskarazkoa ez da hartzaile askorengana heltzen”.

### Bi gertakari

2025ean izandako bi gertakari berri ere eman du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak. Alde batetik gogorarazi du herritar talde batek kexa tramitatu zuela Amurrioko Udalean udan izandako bi gertakariengatik. Hain zuzen ere, sorosle batengana euskaraz jo zutenean horrek gaztelaniaz erantzun zien eta erreklamazio orriak eskatzerakoan halakorik ez zutela esan zieten. Azaldu dute, gainera, kexa adierazteko orduan herritarrek euskaraz esandako gaztelaniaz jaso zuela harrerako langileak. Hurrengo egunean bozgorailuetatik arratsaldean emandako mezua gaztelania hutsez izan zirela gehitu dute eta Amurrioko

Udalari hizkuntza eskubideak bermatzea eskatu diote.

Urduñako inauterietako tes-tuinguruan beste kexa bat jaso zutela bildu du Kontseiluak. Kasu horretan, Udalak antolatutako ekitaldian aurkezleak “euskarazko modu anekdotikoan” erabili zuela azaldu dute, nahiz eta “euskalduna eta kazetari profesionala” izan. Egoerak euskaraz lehenestea eskatzen zuela adierazi du elkarteak, “gaztetxoak eta familia gazteak” osatzen baituzten publiko gehiena. Erabaki hori kritikatu du AIEKEk: “Elebitan jardun eta gaztelania aurretik jartzen badugu zentzu guztia galtzen du, euskalduna elebiduna baita beti, erdalduna ez bezala. Egoera diglosikoan euskaraz da bultzatu beharrekoa, azpiratze eta bazterketa egoera batetik aterara behar dena”.

## Aiaraldea

# Julen Ibarrola Gobantes izoriarra izendatu dute Arabako Kontzejuen Elkarteko presidente



Julen Ibarrola artxibo irudi batean. Aiaraldea.eus

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Julen Ibarrola Gobantes hautatu dute Arabako Kontzejuen Elkarteko presidente izan dadin. Ibarrola Izoriako Administrazio Batzarreko presidentea ere bada eta martxoaren 27an izandako hauteskundetan erabaki zuten kargu hori izango duela.

Berez, Ibarrolak badakizeren Izoriatik harago joaten diren ar-

**Martxoaren 27an** izan ziren elkarteko hauteskundeak eta zuzendari-tzako postuak berriro dituzte

durak hartzea, Urbideko presidentea ere baita 2023tik.

Dena den, ez da Arabako Kontzejuen Elkarteko presidentetza hartu duen lehen aiarra. Gogoratu beharra dago Joseba Terremos arespalditzarrak betebehari hori izan izan zuela 2024ra arte. Dimisioa aurkeztu zuen orduan Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendari izateko Eusko Jaur-laritzan.

## Kubara bidaltzeko oinarrizko produktuen bilketa egingo dute EHKS eta IASek, Euskadi-Cuba elkartearekin batera Amurrion eta Laudion

Testua  
Maider Ramirez Martin

Kubara eramateko oinarrizko produktuak biltzeari ekin diote Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS) eta Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS) Euskadi-Cuba elkartearekin elkarlanean. Aiaraldean, Laudioako Institutuan, Latorro Ikastetxean (Laudio) eta Zaraobe Institutuan (Amurrio) abiatu dituzte jasoketak, eta apirilaren 24ra arte luzatuko dira. Apirilaren 25ean, berriro, Laudioako Lamuza Plazan eta Amurrioko Eroski eta Dia supermerkatuen aurrean egingo dituzte bilketak 11:00etatik 14:00ak arte. Hiru eragileek nabarmendu dute "oso larria" dela

Kubaren egoera: "Itzalaldiak eta erregaiaren eskasia ohiko errealitate bilakatu dira eta egunero bizitzaren arlo guztiak kalteztzen ari dira, horien artean, garrarioa, elikagaiak zein ura eskuratzeko aukera, osasungintza eta hezkuntza". Seinalatu dute egoera hori iraultzaz geroztik Amerikako Estatu Batuek Kubaren aurka izan duten politika isolazionista eta kriminalen ondorioa dela, eta azken urteetan biziagotu egin duela blokeoa Donald Trumpek, baita interbentzio militar baterako mehatxua handitu ere. Hauek dira bilduko dituzten materialak: higiene-materiala, garbitzeko materiala, elikadura-osagarriak zein elikagai ez-galkorrak, kirol-materiala eta ikas-materiala.

## Giza katea osatu dute Tubos Reunidos eta Maderas de Lodioko langileek, instituzioei "neurri erreal eta urgenteak" eskatzeko



Aurrekoetan bezala, presentzia polizial handiarekin egin zuten protesta Refor enpresaldean. Aiaraldea.eus

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeko Garapen Industrialaren aldeko Mahaiaren bosgarren bilera egin zuten iragan apirilaren 20an Refor enpresaldean eta, aurrekoetan bezala, aukera hori baliatu zuten Tubos Reunidos eta Maderas de Lodioko langileek indarrak batu eta bi enpresetan ezarri nahi dituzten kaleratzeen aurkako aldarriak zabaltzeko.

Giza katea egin zuten horretarako eraikinaren ertz batetik bestera. Presentzia polizial handia egon zen, baina ez zen gatazkarik sortu. Mahai-ko parte hartzaile batzuk lan-

gileen artetik sartu ziren aparteko arazorik gabe. Beste batzuk, aldiz, Ertzaintzaren Brigada Mugikorrek atondutako beste bide bat baliatu zuten giza katearekin topo ez egiteko. Bi enpresetako grebalariek "duten erantzukizuna gogorazi" nahi izan zieten mahaian bildutako ordzkarari politiko eta instituzionalei, eta "neurri erreal eta urgenteak" eskatu zizkieten kaleratzeen auziari konponbidea emateko.

"Azken asteetan Aiaraldea berriro egon da albistegietan, hainbat arrazoiengatik, baina hemen ez da ezer aldatu", ziurtatu zuten beharginek. Ohartarazi zuten, ehunka lanpostuk jarraitzen dute suntsitze-

ko arriskuan, "eta erakunde publikoek, kaleratzeen erantzuleei ardurak eskatu ordez, langileon bizkarren gainean jartzen dute ardura guztia". Horren aurrean, berriro salatu dute "Tubos Reunidos eta Garnicako zuzendaritzek" sortu dutela arazoa, eta euren eskatu behar zaizkiela "ardurak eta konpromisoak".

Bien bitartean, borrokan jarraituko dutela ziurtatu dute. Aste honetan hainbat elkarretaratze eta mobilizazio egingo dituzte, eta SOS Aiaralderen hurrengo bilerara gerturatzeko gonbita ere luzatu dute. Apirilaren 29an izango da zita, 19:00etan Amurrioko Kultur Etxean.

**m. langileok**  
**LAB**

Enpleguaren defentsa  
Etxebizitza eskubidea  
Kalitatezko zerbitzu publikoak  
Soldata eta pentsio duinak

**ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA**  
Laudioko herriko plazan 12:00etan

**LAB**  
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDITZAILERA



## Arakaldo

Errepidearen alboan dago txokoa. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## Arakaldoko Herriko Tabernako txokorako ideia bila dago Udala

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Arakaldoko Herriko Tabernako txokoarentzako balizko erabilerak aztertzen ari da Udala, eta "prozesu parte hartzailea" abiatu du bizilagunen ideia eta proposamenak jasotzeko. Tokiko erakundeak azaldu duenez, gaur egun gutxi erabiltzen da espazio hori, eta horregatik nahi dute bere funtzionamendua inguruan hausnartu. Herrita-

rek Udalaren webgunearen bidez (Kexen, iradokizunen eta eskerren atalean) egiteko aukera izan dute apirila hasieran, eta orain jasotakoak aztertzen ari dira.

2018. urtean egin zituzten Herriko Taberna aisialdi gune moduan atontzeko obrak. Elektrizitate, berokuntza eta ur sistemak berritzeaz gain, beheko solairuko barra kendu eta erabilera anitzeko bi areto atontu zituzten, sukaldea eta komuna mantentzearekin batera. Goiko pi-

suan ere antzeko guneekin atontu zuten espazioa. Horren ostean, txoko moduan alokatzeko aukera ematera pasa ziren, gaur egun arte.

Urte batzuk lehenago, 2010ean, Arakaldoko Herriko Tabernak "ospea" hartu zuen ezuztean, Jordi Evole kazetaria (garai hartan "El Follonero" ezizenarekin ezaguna zena) bertan sartu zenean, lokalaren izenagatik erakarrita, Ezker Abertzaleak kudeatutako gune bat izango balitz bezala.

## Okondo

## Herritarren elkargune izan da Baserri Azoka

Okondoko herrigunea hartu zuen azokak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Maider Ramirenz Martin**

Adin guztietako herritarrek izan zuten martxoaren 29an Okondoko Baserri Azokaz gozatzeko aukera. Izan ere, goiz osoko egitaraua prestatua zegoen, askotariko ekintzekin. Egurrezko jolasak eta aurpegi margotzeko txokoa izan ziren txikienen gogokoak.

Iratxo taldearen euskal dantzak eta herri kirolen erakustaldiak jende ugariaren interesa piztu zuten. Artisauen postuak eta jan-edana ere ez dira falta izan.

Eguzkia tarteka atera zen arren, zirimiria eta haize boladak izan ziren goizeko beste protagonistak. Azokaren balorazioa positiboa egin zuen Eneitz Alonso alkateordeak.


**arrate**  
gestoria aholkularitza aseguruak

Utzi zure  
errenta **25**  
profesionalen  
eskuetan

Iturralde kalea 2, AMURRIO  
945 89 02 06  
info@arrategestoria.com  
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza  
gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia



**24, barikua**

19:00 • Faktorian  
GURE AUKERA ELKARTEAK ANTOLATUA/  
**JOSU URRUTIKOETXEA**  
"BELAUNALDIEN ARTEKO KATEBEGIA"  
LIBURUAREN AURKEZPENA  
DOAKOA

#KOMUNITATEFAKTORIA



**25, zapatua**

12:00 • Faktorian  
BASA ZIKLOA/  
**BASA ZIKLOAREN LEHENENGO TOPAKETA**  
BAZKIDEEK 8€ / EZ-BAZKIDEEK 10€  
LANGABETU ETA IKASLEEK 6€

#KULTURFAKTORIA #SORMENFAKTORIA



**30, eguena**

18:00 • Faktorian  
BASA ZIKLOA/  
**"EUSKARA ETA BOK"** LIBURUAREN  
AURKEZPENA  
DOAKOA

#KULTURFAKTORIA  
#SORMENFAKTORIA

AIARALDEA GAIAREN  
**FAK-  
TO-  
RIA**



[WWW.FAKTORIA.EUS](http://WWW.FAKTORIA.EUS)



**INFORMAZIO  
GEHIAGORAKO:**  
HARPIDETU GURE  
WHATSAPP KANALERA!



# Herriz herri

## Urduña

### Pediatria zerbitzurik ez dagoela salatu dute hainbat gurasok Urduñan

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Urduñako guraso talde batek publikoki salatu du hiriak ez duela pediatria zerbitzurik eta umeei arreta medikua jasotzeko Amurriora jo behar dutela. Familiak aldarrikatu dute hirian bertan artatuak izateko eskubidea berreskuratu nahi dutela. "500 haur daude Urduñan 0 eta 14 urte bitartean eta hiritik atara gabe ikusi beharko lukete euren medikua", adierazio dio ama batek Aiaraldea Komunikabideari.

Ondorioz, sinadura bilketa hasi dute eta orriak hiriko dendetan eskuragarri utzi dituzte.

Gurasoek azaldu dutenez, Amurrioren hiru pediatria daude eta astean hiru egunetan eskaintzen zu-

ten kontsulta Urduñan —bakoitzak egun bana—. Ordea, iaz mediku eta batek baja luzea hartu zuen eta orduan egin zuen dena okerrera, ordezko medikuak ez duelako, antza, bere lanaldi osoa estaltzen. Berez, ez omen du kontratu jarraitua.

#### Udalaren oharra

Urduñako udal gobernu taldeak, bere aldetik, oharra zabaldu du egoerari buruz. Tokiko erakundeak azaldu du: "Urduñako Udalak herritarrei jakinarazi nahi die aktiboki lanean ari dela, Osakidetza-rekin koordinatuta, gure herriko pediatria zerbitzua bizi duen egoerari erantzuna emateko. Otsailaren 2az geroztik, harreman zuzena dugu osasun-zentroko kudeaketa-taldearekin".

## Bazatoz?

### MATRIKULA ZABALIK


2025ean eta 2026an jaiotakoentzat

Zatoz Audio Ikastola ezagutzera!

**ATE IREKIAK: MAIATZAK 9**

94 672 67 37

matrikula@audioikastola.eus



**IKASTOLAK**

LAUDIO  
**ikastola**

Aresketa  
**ikastola**

## Amurrio

### Amurrioko Bermutaren Eguna egingo dute maiatzaren 24an, herriko bi ekoizleen eskutik



Apirilaren 20an aurkeztu zuten egitasmoa. [aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Maiatza hilabete potentia izan ohi da Amurrioren, eta aurreten beste zita bat gehituko zaio egitarauari, Bermutaren Eguna egingo baitute herrian hila-beteko 24. egunean.

"Vermuteke" izena jarri diote ekimenari, eta udalerriko ekoizpena balioan jartzea izango da helburu nagusia. Izan ere, ekimenaren aurkezpenean azaldu dutenaren arabera, Destilerías Acha eta Licores Barañano enpresa amurriarrak dira edari hori ekoizten duten EAEko enpresa bakarrak. Bi likore fabriketako arduradunek hartu dute parte prentsaurrekoan, Udaleko ordezkariarekin batera, eta produktu horrek herrian "sustrai sakanak" dituela aldarrikatu dute.

Destilerías Acha Bilbon sortu zen 1831an, eta handik 50 urtera finkatu zen Amurrioren. "Oso errezeta zaharrak gordetzen

Aurkezpenean ziurtatu dutenez, **Destilerías Acha eta Licores Barañano dira edari hori ekoizten duten EAEko enpresa bakarrak**

ditugu, batzuk 1883koak dira, eta gaur egungo gustu eta kontsumitzeko moduetara egokitzten jakin dugu, funtsa galdu gabe", nabarmendu du enpresa horretako kide den Santiago Bronchalesek.

Licores Barañanon, aldiz, bost belaunaldi daramatzate likore eta bermutak egiten. "Produktuarekiko eta ingurunearekiko maitasun handiz lan egiten dugu, proposamen berriak txertatuz, baina gure tradizioari eta nortasunari eutsiz", nabarmendu du Gaizka Barañano arduradunak.

#### Ekintza ugari

Aurreratu dutenez, goiz osoko egitaraua izango da maiatzaren 24koa. Zuzeneko musika eta produktu gastronomikoen dastaketak eskainiko dituzte, eta baita Marianito Prestatu Txapelketaren lehen edizioa ere. Jakinarazi dutenez, koktelgintzako izen esanguratsuak bertaratuko dira zitara.

## Amurrio

# Taupadak berpizteko deia dantzan zabaldu dute Amurrion, Araba Euskarazen kantaren aurkezpenean



Ekainaren 14an ospatuko dute Araba Euskaraz Amurrion. [Aiaraldea.eus](https://www.aiaraldea.eus)

Testua  
Maidier Ramirez Martin

Kalean dira Araba Euskaraz jairen abestia eta bideoklipa. Apirilaren 22an aurkeztu dituzte Guk eskulturaren ondoan egindako ekitaldian. Aresketa Ikastolako ikasleekin batera, Igon Olaguenaga eta Txiki Lora abestiaren sortzaileek hartu dute plaza. Aurtengo edizioaren leloa darama kantak izenburuan: Taupadak berpiztu!. Izan ere, "abestiaren letra euskararen biziberritzeko beharrari dei zuzena" dela adierazi dute antolatzaileek. Hala, 1960ko hamarkadako berpizkundera gogora ekarri eta egungo egoerari buruzko hausnarketa egin nahi dute, etorkizunari begira "gogoa eta kuraia" aldarrikatuz. Ekainaren 14ko zita berezia girotzeko, abesti "dantzagarri eta anitza" sortu nahi

**Igon Olaguenaga eta Txiki Lorarekin batera,** hainbat dira kantan parte hartzen duten musikariak

izan dute. Hori dela eta, saltsa generoko erritmoak ditu abestiak oinarrian baina hainbat dira nahasten diren doinuak: alboka, trikia, tronpeta, tronboia eta perkusio latinoa, besteak beste.

Igon Olaguenaga eta Txiki Lorarekin batera, hainbat dira kantan parte hartzen duten musikariak, hala nola Amaia Santamaria (ahotsa), Rodrigo Ulises (perkusioa), Yago Salorio (baxua), Marcos Ortega (tronpeta), Fernando Blanca (tronboia), Ibon Koteron (alboka), Joseba Tapia (trikitia) eta Iñaki Otxondorena "Moro" (letra eta ahotsa). Ikastolako gaztetxok ere haien doinurik onenak eman dituzte koruetan. Eneko Martinez Aresketako ikasle ohia arduratu da bideoklipaz, eta "ikastolako sorreratik lanean jardun duen komunitate osoari" egin nahi izan dio aitortza.



# La Milagrosa Ikastetxea



**ZURE ZAIN GAUDE!**

**MATRIKULA ZAITEZ!**

**Jaioberriak - 16 urte arte**



**946720701** 

**info@lamilagrosalaudio.eus**




# Aiarako jaiak

## Jaiak eztanda egitear daude Aiaran



Testua  
**Altor Aspuru Saez**

Apirilaren 24an abiatuko dituzte Aiarako jaiak, hau da, ostiralean bertan. Maitane Perez Gomezek hartuko du bere gain San Prudentzio jaietako pregoia irakurtzea eta txupinazoa jaurtitzea. Hautaketa Udalak abiatutako parte hartze prozesuaren ondorioa izan da, tokiko era-

kundeak eskatu baitziren herritarrei emakume bat proposatzeko eginkizun hori betetzeko. Irakaslea ogibidez, Maitane Perez Gomezek lau liburur argitaratu ditu bi urte eskasetan. Bere lehenengolana, *Haizene eta oroitzapenen magia* haur literatura da eta bere helburua izan zen bere alabari laguntzea dolua gainditzen.

Pregoiaren ondoren Aiara Dantza Taldeak egingo du erakustaldia eta

gero elektrotarangaren eta Jonkasen txanda izango da. Jonkasek urteak eman ditu Akerbeltz erromeria taldean abesten, baina orain dela gutxi bere proiektua hasi du, erromeria eta berbena kutsuari uko egin gabe. Lehenengo jai egun hori DJ Blessivek itxiko du gaueko ordu txikietan.

Jaiaren parte hartu nahi dutenek jakin behar dute autobusa eskainiko duela Udalak inguruko herrietatik joan eta itzultzeko, ostiralean zein larunbatean.

Hurrengo bi egunetan ohitura bilakatu dituzten hainbat ekintza ospatuko dituzte: Jesus Isasi memoria, haurrentzako jarduerak anitzak, abesbatzen kontzertua —horien artean Bleibet—, herri kirolak, Gauegun erromeria, Luiaondoko DJ Sospechoso de Spam, Joselu Anayaken musika emanaldia... Eta jarduerak ez dira soilik Arespalditzan izango, Kexaa eta Luiaondora ere zabalduko baita egitaraua bola joko txapelketarekin edo nagusientzako dantzaldiarekin.

Astelehenean patxada handiagoz

**San Prudentzio jaiak apirilaren 24tik 28ra izango dira eta Menoion ere ospakizunak izango dituzte**

hartuko dute eguna eta *Las invisibles* filmaren proiektzioa egongo da udalbatza aretoan. Hori bai, asteartean agur paregabea prestatuko diete jaietako goizetik gauera arte: eskualdeko azoka, umeen danborrada, haurrentzako tailerrak, dantza plaza Patxi Perez eta Konpainiarekin eta odoloste jana egingo baitituzte.

**Menoion ere festak**

Udalerriko jai nagusiekin, dena den, administrazio batzarrenak ere piztuko dira. Apirilaren 24an eta 25ean Menoion San Markos ospatuko dute urteroko egitarauarekin. Ostiralean zizka-mizka eta txupinazoa izango dute eta larunbatean, aldiz, meza, luntxa eta arkumearen zozketa. Aiarako hurrengo jaiak, Arespalditzakoak izango dira.

Maiatzaren 15ean San Isidro azokaren txanda helduko da eta larunbatean, ordea, egun osoko egitaraua bizi antolatuko du kontzejuak mendi ibilaldiarekin, puzgarriekin, tortilla txapelketarekin, herri bazkariarekin edota Txapela Bravaren kontzertuarekin.

**GANORA**  
**KOPAS**

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Trofeoak, **Kopak**, Txapelak, **Plakak**, Giltzatakoak, Pinak, Kamisetak, **Zapiak**, Amantalak, **Sukalkit**, Laser grabaketak, **Metakrilatoa**, Promozio artikulua, **Sari instituzionalak**, Merchandisinga, **Grabatuak**, Taillaketak, **Brodatuak**, Errotulazioa, Biniloak, Lonak, **3D inprimaketak**, Estanzazioak...

Aiarako Industrialdea 8, 01479  
MURGA / ARABA  
945 39 94 05 fabrica@kopas.es



Alda. Urkijo 88 - 2 - 48013  
BILBAO / BIZKAIA  
944 42 22 24 kopas@kopas.es



**“Harrotasunez biziko ditut Aiarako jaiak eta hori ere islatu nahi dut”**

EGUN BIZIAK DIRA HAUEK **MAITANE PEREZ GOMEZ**ENTZAT BARTZELONAKO SANT JORDI LIBURU AZOKARA JOATEA AURREIKUSI DU OSTEGUNEAN ETA OSTIRALEAN SAN PRUDENTZIO JAIEN PREGOIA IRAKURRIKO DU.

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

**Nola hartu duzu pregoilari izateko hautaketa? Pregoia idatzi duzu?**

Ilusio handia egin dit, baina bertigoia ere. Ez nago ohituta horrenbeste jendearen aurrean hitz egitera. Badaukat zer esango dudaren ideia. Alde batetik, aipatuko dut nola bizi ditudan egun eta nola bizi izan ditudan jaiak. Herriari buruz ere mintzatuko naiz. Izan ere, ez naiz hemengo, Amurriokoa naiz. Hona etorri nintzen hamabost urterekin gurasoek ekarri nindutelako. Momentu horretan ez nuen ulertu, baina orain ez nuke ezer aldatuko. Hemen bizi naiz eta hemen bizi nahi dut etorkizunean. Azalduko dut zer den Aiara niretzat.

**Zergatik hautatu dizute pregoilari?**

Arespalditzan bizi izan naiz eta Erretes Lantenoko bizilaguna naiz orain. Nik hemen egin ditut sustraiaketa hemengo naiz, ondorioz. Txikitan ez nuen susmorik zenbat

maitatuko nituen herri hauek. Liburuetan ere hori agertzen da eta etorkizunean ere horrela izango da. Gauza eder asko ditugu Aiara eta hori zabaldu behar dugu. Uste dut horregatik, neurri batean, eman didatela pregoiaren ardura, Aiara ezagutzan lagundu dudalako eta hemen sustraiatu naizelako. Nire literaturan asko agertzen da Aiara eta kanporatzen lagundu dudalak uste dut

**Zein izan da zure ibilbide literarioa?**

Hasi nintzen umeentzako literaturarekin, alabari laguntzeko doluarekin. Maite ditugun pertsonak betirako gogoratzearen garrantzia lantzeko idatzi nuen Haizene eta oroitzapenen indarra. Gero etorri zen Aialur: Maroñoko sekretua. Liburu horretan fantasia mundu bat kokatu dut Maroñon, ez dugulako behar beste leku batzuetara joatea horretarako.

Horrek eskualdeko eskoletan, adibidez, harrera oso ona izan du. Argitaletxeak bigarren atala nahi du, baina nik plazeratik idazten dut,

ez behartuta. Hain zuzen, Maitane naiz lehenik eta behin, gero ama eta, azkenik irakaslea. Idazten dut ihesbide moduan eta ez da derrigortua egiten dudana zerbait.

Orain helduentzako literaturan nago sartuta. Azken liburuak, Cuando el bosque recuerde euskal mitologiarekin harreman handia dauka esandakoagatik, uste dudalako hemengo ondarea, kultura eta sustraiak landu eta mantendu behar direla. Maiz kanpora jotzen dugu erreferente bila eta ez diogu Euskal Herriari erreparatzen, nahiz eta ondare izugarria izan. Hori nabaritzen dut nire lanean. Irakaslea naiz eta askotan irakasten ditugu kanpoko gauzak eta ez dugu euskal kultura ezagutzen; tradizioa, baserria, ohi-turak... Egunerokotasunean hutsune handia dago. Ondo dago jakitea zer dagoen atzerrian, baina hemengo ere ezagutu behar dugu.

Azken eleberrira itzulita, euskal mitologia eta bere pertsonaiak -Basajaun, Mari, Sugaar, Akerbeltz...- mundu garaikidera eramane ditut. Berrikuspen bat da. Nik oso gogo-

ko izan dut beti euskal mitologia eta ikasten nuenean ahal nuenean horri buruz idazten nuen. Ez dakit th-riler edo misterioa edo fantasia den. Pertsonaia mitologikoak protagonistak dira, gaurkotatunera ekarrita, hori bai.

**Helduen literaturan harreman tokixoetan sartu zara.**

Bai, tamalez, hori ez da hemen gertatzen den arazoa, egungo kultura da eta mundu osoan. Saltzen digute maitasuna gauza bat dela eta guztiz kontrakoa izan beharko litzateke. Alegia, errespetua, maitasuna eta maitasun propioa izan beharko litzateke.

Institutuan edo eskolan ikusten duzu gazteen artean islatzen direla gizartearen eredu batzuk gero eta lehenago agertzen direnak eta gero eta okerragoak direnak.

**Euskadi Literaturaren Sariaren epaimahian ere ibili zara.**

Bai, iaz, euskarako eleberrien atalean. Oso esperientzia ona izan zen, asko gozatu eta ikasi nuen. Eus-

kal literatura ezagutu behar dugu eta epaimahai horretan asko ikasi nuen Patxi Zubizarreta edota Daniele Sarriugarteren eskutik. Kuadrillako lagunekin esperientzia partekatua dugu. Maiz liburudendetara goaz eta liburuak ez daude ikusgai, galdetu behar duzu. Jendea ez dago ohituta.


**Zerbait duzu esku artean orain?**

Bi proiektu ditut. Nire liburuek sustrai bera dute, barruko emozioak eta nondik gatozen eta nora goazen. Badago eleberririk bat ondo geratuko dena, uste dut. Beste eleberririk bat ere hasi dut. Gainera, Aialur-en bigarren atala daukat. Eskoletan oso harrera ona izan du. Maroño ezagutu dute eta guraso batzuek esan didate hara joan direla. Argitaletxeak beste istorio bat eskatu dit.

**Zeresperodu Aiarako jaietan?**

Beti bezala bizitzea. Bereziak izango dira eta ilusioa ematen dit, baita beldurra ere. Harrotasunez ere biziko ditut eta hori ere islatu nahi dut.

# Aiarako jaiak



**“Topikoa dela pentsatuko duzue, baina Aiarako publikoa berezia da”**

**JONKASS** AURPEGI EZAGUNA IZAN DA AIARAN AZKEN URTEOTAN AKERBELTZ ERROMERIA TALDEKO ABESLARIA IZAN DELAKO, JAIETAN ITZULIKO DA BERE PROIEKTU PROPIOAREKIN.

Testua  
**Altor Aspuru Saez**

**Akerbeltzen ostean zuk bakarrik abiatu duzu zure ibilbidea.**

Bai, beste fase batean nago. Bakarkako ibilbidea zen, baina taldekako sentimendua gero eta handiago da. Sormenerako gogoia nuen eta asetzeko egin dut. Ni naizena adierazi nahi dut.

**Zergatik orain?**

Hamalau urterekin hasi nintzen nire abestiak sortzen eta kantamordoa nituen, batzuk beste jendearekin eginda. Akerbeltzekin egon naitenez, ez nuen unea ikusten. Proiektu batean nagoenean, gogoko dut %100ean aritzea.

**Nola definituko zenuke zure musika?**

Pop-rocka hartu dugu, funkia ere jotzen dugu, ukitu elektronikoak, folketik ere edaten dugu...

Dantzagarria da eta erromeriatik ezagutzen naute. Horregatik erromerietako giro hori hartzen ere saiatu gara, elementu guztiak batuta eta zentzua emanda.

**Nolakoa izan da prozesua?**

Paradisu Zinema bekara aurkeztu nituen abesti batzuk eta lortu nuen. Horrek ere muga bat eman zidan diskoa egiteko. Edonola ere, hori baino lehen Akerbeltzek bazekien 2025 nire azken urtea izango zela taldean. Beti nire ibilbidea bakarlarik gisa atzeratzen eta zerbait ezberdina eta nirea egiteko gogoz. Akerbeltzen nengoenean ez nintzen nire burua sentitzen artista oso gisa beste sortzaile batzuekin nengoenean.

**Zer topatuko du publikoak?**

Lehenik eta behin, gonbidatu nahi ditut etortzen, Akerbeltz gus-tuko izan bazuten, honetaz ere gozatuko dutelako ere. Desberdina

da, baina ikuskizunarekin asko jokatzen dugu. Ezagutzen nauenak badaki ikuskizuna eskaintzea gogoko dudala, baita publikoak parte hartzea ere. Dena den, oreka bilatu dugu ezagutzen ez dituzten nireak eta ezagutzen dituzten abestiek dantzatzeko. Moldatu duguzuzenak, jendeak, oro har, ez dituelako nire kantak ezagutzen. Oso bisuala da eta ondo pasatzeko. Nire helburua hori da, nahiz eta jendeak nire kantak ez ezagutu, gozatzea. Ezustekoak egongo dira eta dena ondo pentsatuta dago. Gakoa da dantzatzeko eta abesteko gogoekin etortzea. Bi diskoteka bola ditugu, arropa aldaketa dago, argiekin jolasten dugu... Gero bakoitzak erabaki dezala lehen egiten nuena gehiago gogoko duen edo ez, baina, lehenik eta behin ikus dezala.

**Aiaraldean behin baino gehiagotan jo duzu, ezta?**

Topikoa dela pentsatuko duzue,

**“Gogoko dut show-a, bi disko bola ditugu, arropa aldaketa dago...”**

baina Aiarako publiko berezia da. Nire lehenengo kontzertuetako bat Amurrioko kintoetan izan zen 2022an pandemia ostean eta Arespalditzara joan gara urtero. Ezagun pilo ditut jadanik, gure ohitura izan delako giroaz gozatzea eta geratzea jaietan. Hori oso gogoko dut.

Ez dakit zergatik, baina jendeak beso zabalik hartzen gaitu eta asko dantzaten du. Beste leku batzuetan nekez lortzen duzu publikoak dantzatzea, baina hemen jendea prest dago eta igartzen da. Asko laguntzen dute eta beti sentitu izan gara oso zainduak. Beti gogoratu dira gutaz eta hori plazera da, baita harremanak sortzea ere, jendea ezagutzeko.

Horrez gain, Aiarako jaiak bereziak dira urteko lehenengo jaietarikoa bat direlako eta termometro oso ona ikuskizuna probatzeko. Espero dugu eguraldiak laguntzea, bestela karpa ederra dago. Ez dago aitzakiarik ez etortzeko!

## Aiarako jaiak

# Egitaraua

## 04.24 Ostirala

**18:45** // Pregoia.  
**19:00** // Txupinazoa.  
**19:00** // Euskal dantzak Aiara Dantza Taldearekin.  
**20:00** // Elektrotzaranga.  
**22:00** // Jonkass.  
**02:00** // DJ Blessive.

## 04.25 Larunbata

**11:00** // Jesus Isasi Memoriala, txirrindula lasterketa.  
**11:30-14:00** // Puzgarriak, belaunaldien arteko jolasak, Etxaurren Ikastolako gurasoen arteko jolasak, tailerrak...  
**12:00-14:00** // Bola jokoaren erakusteka udalbatza aretoan.  
**17:00** // Euskal Jaia: Barre bidean ikuskizun ibiltaria.  
**17:00** // Abesbatzen konzertua: Bleibet, Ipar-Alde Abesbatza eta Luis Iruarrizaga Abesbatza.  
**22:00** // Gaitegun erromeria.  
**02:00** // DJ Sospechoso de Spam.

## 04.26 Igandea

**12:00** // Herri kirolak.  
**12:00** // Bola jokoa Kexaan.  
**13:00** // Meza.  
**14:30** // Nagusientzako herri bazkaria, Oleta Jatetxean.  
**18:00** // Bola jokoa Kexaan.  
**20:00** // Bakarrizketa.  
**22:00** // Joselu Anayak.

## 04.27 Astehelena

**18:00** // Los Invisibles filma.

## 04.28 Asteartea

**10:00** // Baserritar azoka.  
**12:00** // Danborrada Etxaurren Ikastolako haurrekin.  
**12:30** // Tailerra; txanoa eta amantala margotzeko.  
**13:00** // Meza.  
**19:00** // Dantza Plaza Patxi Perezekin.  
**20:00** // Odoloste jana.



# Aiarako Jaiak 2026

APIRILAREN 24TIK 28RA

**TXIRRINDULARITZA LASTERKETA - JONKASS - HAURRENTZAKO EKINTZAK - GAUTEGUN ERROMERIA - JOXELU ANAIK BOLA JOKOAK - PATXI ETA KONPAINIA - HERRI KIROLAK - DJ BLESSIVE EUSKAL DANTZAK - ABESBATZAK - ELEKTROTCHARANGA - AZOKA**

...eta askoz gehiago!



Aiarako Udala  
Ayuntamiento de Ayala

\*AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA EGONGO DA.

# AMURRIO San Jose auzoa

## Gaurko eta atzoko doinuek astinduko dituzte San Jose auzoko jaiak



Testua  
**Malder Ramirez Martin**

Abiatzear da eskualdeko jaien maratoia eta San Joseko jai batzordeak prest du dagoeneko auzoko festak ospatzeko egitarau oparoa. Apirilaren 30etik maiatzaren 2ra bitartean luzatuko dira ekintzak eta musika eta dantza izango dira nagusi.

Jaien lehenengo eguneko arratsaldean, umeez gozatuko dute gehien. Izan ere, 18:00tan txupinazoa jaurti ostean, haurrentzako jolasak eta diskofesta egongo dira, txokolatadaren zapore gozoaz lagunduta.

Lehenbiziko gauean, Zirkinik bez! erromeria eta DJ Masa eta Pakita penas musika jartzaile audioarrak igoko dira oholtzara.

Ostiralean, trikiti eta panderoek goizean goizetik alaituko dute giroa. Urteroko txirringulartza lasterketa 11:00tan abiatuko da eta 12:00tan izango da meza. Horren ostean, 13:00ean, igel-toka txapelketa hasiko da eta bermut dantzaldia egingo dute Otegirekin, aldeberean.

## Apirilaren 30etik maiatzaren 2ra izango dira jaiak aurten

Arratsalde partean, dantza erakustaldia izango da lehenago eta gero herritar guztiak batu ahaliko dira gorputza mugitzera, Otegik gidatutako eguneko bigarren dantzaldian.

Maiatzaren 2an agurtuko dituzte San Joseko bizilagunek jaiak eta herri bazkarian bilduko dira horretarako. 14:00an izango da eta tiketak salgai daude dagoeneko auzoko taberna eta saltokietan. Jai batzordetik azpimarratu dute auzoan bizi diren 70 urtetik gorako eta 10 urtetik beherako herritarrei sarreraren dirua itzuliko zaiela bazkarian bertan, baina garrantzitsua dela alde aurretik eskuratzea.

80ko eta 90eko hamarkadetakoa musikak girotuko du iluntzea, eta jaietara emateko Altxa Porru erromeria eta DJ Varrok jarriko dituzte doinuek. Jai batzordeko kideek azaldu dutenez, jai-ohitura berrietara egokitzeko ahalegina egin dute aurtengo egitaraua prestatzerakoan, eta gazteen artean arrakasta handia duten erromeria eta musika jartzaileak ekarri ditu eszenatokira.

## Pi L.T. metal talde ezagunak kontzertua eskainiko du Amurrioko Gaztetxean



Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Musika eskaintza zabala prestatu dute Amurrioko Gazte Asanbladako kideek, San Joseko jaietako egitaraua are gehiago aberasteko. Maiatzaren leian Pi L.T. talde ezagunak astinduko du Gaztetxea, baina talde eta musika estilo gehiago izango dira jaietako hiru egunak girotzeko.

Zorionekoak dira Aiaraldeko metal zaleak. Maiatzaren leian, San Joseko jaien testuinguruan, kontzertua eskainiko du Pi L.T. talde ezagunak Amurrioko Gaztetxean. 1990eko hamarkadan rock eta metal musikan zein euskal eszenan iraultza eragin zuen mungiarreko bandak. Bost diska kaleratu zituzten 1993 eta 2005 urteen bitartean. Ia bi hamarkadaz luzatu zen eten baten ondoren, 2024an itzuliko ziren eszenatokietara.

Mungiarrek Cabron Dandy tokiko taldearekin elkarbanatuko dute Gaztetxeko oholtzara. Luis Vil amurriarra da Cabron Dandy taldeko abeslaria, eta maiatzaren 1eko kontzertua "mendeku txiki bat" izango dela azaldu du sare sozialetan. Izan ere, gauegun Amurrioko Gaztetxea dena Guardia Zibilarren kuartela zen duela 40 urte, eta gaztetan bertan bizitako pasarte ilun bat ekarri du gogora sortzaile amurriarrak kontzertuaren be-

rri ematearekin batera: "Datorren maiatzaren leian zirkulu bat itxiko dut irrikaz, arantza zahar bat erauziz. 1980ko hamarkadako kuartel ilun hura gaztetxe koloretsu eta alaia da gaur egun. Ilusio handia egiten dit maiatzaren leian, Langile Klasearen Nazioarteko Egunean eta auzoko jaietan, agertoki horretara igotzeak, orain dela 40 urte baino gehiago ezin izan nuenari ordaina emateko, gustura gertatzeko, oihu egiteko, eta, batez ere, erantzuteko".

Kontzertuak 21:30etan hasiko dira, sarrerak 12 euroko prezioa izango du eta egunean bertan erosi beharko dira.

Musika eskaintza zabala Rock eta metal musikaz harata, urtero bezala eskaintza zabala prestatu dute Amurrioko Gazte Asanbladako kideek auzoko jaietako egitaraua aberasteko. Apirilaren 30ean Selektia Stepik eta DJ Txatxis jarriko dute dantzan San Jose auzoko gune autogestionatua goizeko ordu txikiak arte. Maiatzaren 2an ere zabalduko dituzte Gaztetxeko ateak, 22:30etatik aurrera. Hirugarren egun horretan DJ Katuska audioarrak arituko dira oholtzatik giroa berotzeko lanetan. Gazte Asanbladako kideek aurreratu dutenez, beste talde bat gehiago lotzeko ahaleginetan ari dira ere, jai-giroa hare gehiago zuzutzeko.

## AMURRIO San Jose auzoa

## Egitaraua

04.30  
Osteguna

18:00 // Txupinazoa.  
18:00 // Haurrentzako jolasak eta Diskofesta  
18:30 // Haurrentzako txokolatada  
22:00 // Zirkinik Bez! Erromeria  
22:30 // *Gaztetxean* Selektah Stepi eta DJ Txatxis  
01:00 // DJ Masa  
03:00 // Pakita Penas

05.01  
Ostirala

10:30 // Trikitixa kale giroa.  
11:30 // Txirrindularitza

lasterketa.  
12:00 // Meza  
13:00 // Vermouth dantzaldia Otegiarekin eta igel-toka txapelketa  
19:00 // Dantza erakustaldia  
20:00 // Otegiarekin dantzaldia  
21:30 // *Gaztetxean* Cabron Dandy eta Pi L.T.

05.02  
Larunbata

14:00 // Babarrun jan herrikoia eta bingoa  
20:00 // Guatekea  
22:00 // Altxa Porru! erromeria  
22:30 // *Gaztetxean* DJ Katiuska  
01:00 // DJ Varro



## Aiaraldeko jaiak euskalduntzeko urrats berriak

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Jaietan euskararen erabilera sustatu dezaten, eragile berriak erakartzeko lanetan da Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua. Egitasmoen hartzaileak ostalariak eta festen antolatzaile herrikoak dira.

Ostalarietara dagokienez, proposamena zabaldu dute taberne euskararen erabilera erraztu eta zabaldu dezaten. Horretarako hiru konpromiso mota hartzea eskaini dute; oinarritzak, erdikoak eta aurreratua: Bakoitzak karteletan, musikan eta zerbitzarien ja-

kintzan dauka isla. Ekimenera bartzin diren guztiekin Taberna euskaldunen mapa osatuko du Kontseilua

**Praktika onen gida**

Jaiak antolatzen dituzten kultura, kirol, auzo eta herri eragileei, aldiz, bestelako proposamen egin die Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak: Praktika onen gida.

Dokumentuak lagungarria izan nahi du ospakizunen antolatzaileek argi izan dezaten zein esparrutan eragin dezaketen jaiak euskarazko sozializazio eremu bilakatzeko. Kontseiluak azpimarratu du egitarauaren, komunikazioaren,


esatarien edota arretaren garrantzia adierazi dute eta zenbait irizpide gomendatu.

Aurtengo egitasmoa ez da lehenengo izan eskualdeko jai eremua euskaraz aritzeko tokilagunak izan dadin. Hain zuzen, aurreko urteetan udalekin landu dute helburu bera eta gaurko prentsaurrekoan gonbidatu dituzte batzera inizatiba horretan parte hartzen ez duten tokiko erakundeak.

Gauzak horrela, kanpaina honen aurretik egindako lan horretan sakondu nahi du eta sektore berriak metatu Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren bidelagun izan daitezen.

**KOMUNIKA** ZERBITZU FAKTORIA

KOMUNIKAZIO AGENTZIA INTEGRALA



Diseinu grafikoa · Ikus-entzunezkoak  
Sare sozialak · Publizitate agentzia  
Erakunde komunikazioa  
Itzulpen gintza eta interpretazioa

komunika@aiaraldea.eus · 946 56 85 54  
[www.komunika.eus](http://www.komunika.eus)

**ARETXONDO TABERNA**

Errotonda alboan

20:00etatik aurrera  
**BOKATA** egin berriak

ORDUTEGI JARRAIA,  
larunbat eta  
igandean zabalik

GOSARIAK  
5:30etatik aurrera



945 39 35 95



Gure berezitasuna, tokiko haragi freskoak

Ondo pasa jaietan!

Zabaleko, 8 AMURRIO 945 89 00 31

# AIARALDEA San Prudentzio

## Ohiko osagaiekin ospatuko dituzte San Prudentzioak Aiaraldean



Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Arrakastabadauka, zertarako aldatu? Printzipio hori guztiz barneratuta dute San Prudentzioko ospakizunetako antolatzaileek. Urteak daramatzate apirila bukaerako ospakizun horretan eskema berdina errepikatzen Amurrion zein Laudion, baina hori ez da oztzopo urtero ehunka lagun biltzeko.

Urtero bezala, hezkuntza zentroek ekingo diote giroa berotzeari, ostiral honetan bertan, apirilak 24. Amurrion 15:30ean egingo dute Danborrada Txikia, Juan Urrutia plazan. Laudion, aldiz, arratsaldeko seieta jarri dute zita. Ondoren, tailerrekin, txosnarekin eta Imanolen disko-dantzarekin luzatuko dute arratsaldea.

### Laudion, bi egun

Laudion Rakatapla elkarteak da San Prudentzioko ekitaldiak anto-

latzen dituen elkarteak, eta bi osagai nagusi baliatzen ditu horretarako: barraskilo dastatzea eta danborrada. Igandean (apirilak 26) egingo dute lehena, 12:30ean Herriko plazan. Ez dira horretara mugatuko. Puzgarriak, egurrezko jolasaketa musika ere eskainiko dituzte goizean zehar, eta baita euskal dantzen erakustaldia ere, Akelarre taldearen eskutik.

Hurrengo egunean, aldiz, danborradaren txanda helduko da. Gaueko hamarretan abiatuko dira Aldai plazatik. Herriko kale nagusiak zeharkatuko dituzte, handik bi ordutara Herriko plazan amaitzeko. Izan ere, urtero bezala, erretrera eta udaletxeko balkoiko ikurriñaren igoera egingo dituzte.

### Amurrion ere, betiko eskema

Amurrion, aldiz, apirilaren 27ko arratsalde eta iluntzean pilatuko dituzte jarduera guztiak, ohiko eskema mantenduta. 19:30ean Fron-

toi kaletik abiatuko da denborrada, eta hainbat kale zeharkatuko ditu (Jose de Medinabeitia, Etxeguren gotzaina, Larrinaga, Iturralde, Aira etorbidea eta Landako) San Anton plazara iritsi baino lehen. Bertan egingo dute azken erakustaldia, Beti Jai fanfarrearen laguntzarekin, eta jarraian ekingo diote barraskilo kazolak banatzeari. Ondoren, gaueko bederatzietan, berriz abiatuko dira danbor-jotzailak, Udaletxe aurrean amaituko den kalejiran.

### Artziniegan, nagusientzat

Apirilaren 28a jai eguna izango da Araban, eta Artziniegako Nagusien Elkarteko kideek aukerabaliatuko dute bildu eta elkarrekin gozatzeko. Meza egingo dute hamabietan parrokiaren, eta La Encina jate txera joango dira gero bazkaltzera. Bukatzeko, bailableak izango dituzte frontoian, 17:30etatik aurrera.

## Egitaraua

### 04.26 Igandea

12:30 // Laudion,  
Herriko plazan  
Barraskilo dastaketa

12:45 // Laudion,  
Herriko plazan  
Euskal dantzak Akelarre  
dantza taldearen eskutik

### 04.27 Astelehena

19:30 // Amurrion  
Desfile-danborrada,  
Frontoi kaletik, Jose de  
Medinabeitia, Etxeguren  
gotzaina, Larrinaga,  
Iturralde, Aira etorbidea,  
Landako, San Anton  
plazaraino

20:00 // Amurrion,  
San Anton plazan  
Danborrada, Beti  
Jai fanfarrearen  
laguntzarekin

20:15 // Amurrion,  
San Anton plazan  
Barraskilo jana

21:00 // Amurrion,  
San Anton plazatik  
Desfile-danborrada,  
San Anton plazatik,  
Landakotik, Elexondo  
pasealekutik, Juan  
Urrutia plazaraino

22:00 // Laudion,  
Aldai plazatik  
Danborrada

00:00 // Laudion,  
Herriko plazan  
Erretrera eta ikurriñaren  
igoera San Prudentzioren  
omenez

### 04.28 Asteartea

12:00 // Artziniegan  
Meza parrokiaren

14:30 // Artziniegan  
Bazkaria La Encina  
jate txeran

17:30 // Artziniegan  
Dantzaldia frontoian



# Kirola eta musika izango dira Gardeako jaietako osagai izarrak



Testua  
**Almar Gutierrez Bidarte**

Maiatzaren hasierarekin batera helduko dira jaiak Gardeara. Hilaren lehenean, ostiralez, izango da txupinazoa eta asteburu osorako egitarau zabala antolatu du jai batzordeak, Udalarekin elkarlanean. Hurrengo iganderako ere gorde beharko dituzte indarrak,

urteroko paella eta tortilla txapelketak orduan egingo baitituzte.

Maiatzaren 1eko 19:00etan abiatuko dira ofizialki Gardeako jaiak, garai batean auzoan egondako El Resbalon eta Garayo tabernetako ordezkariak txupina jaurtitzen dutenean. Jai batzordeak omenaldia egin izan dio horrela duela hamarkada batzuk auzoan egondako elkarguneei eta

oraindik garai horiek mimoz oroitzen dituztenei. Musika eskaintzari dagokionez, apustu sendoa egin dute aurren: Joselu Anayak, Gaitegun erromeria, Pakita Penas DJak, Txapela Brava eta 3 Killer Zombies rock bertsioren taldea igoko dira oholtzara. Berritasun gisa, txupinazoa bitartean eta ostean taloak prestatuko dituzte, eta euro batean saldu.

## Egitaraua

### 05.01 Ostirala

**09:30-21:00** // Padel Txapelketa Mistoa  
**18:00** // Rugby entrenamendu irekia.  
**18:00-20:00** // Santa Cruz Bolatoki Sari Nagusia  
**19:00** // Txupinazoa El Resbalon eta Bar Garayoren eskutik  
**19:00** // Talo dastaketa Joselu Anayakekin  
**22:00** // Gaitegun Erromeria  
**00:30** // Pakitapenas DJ

**16:30** // Master Hockey III. Txapeleka Mistoa.  
**17:00** // Buruhandiak.  
**18:00** // Txokolate jana.  
**18:18** // Gardearte V. edizioa  
**18:30** // Padel Txapelketa Mistoko finala  
**22:00** // 3 Killer Zombies kontzertua

### 05.03 Igandea

**10:00-13:30** // Padel Txapelketa Mistoko finala  
**10:00** // Kalejira Lankaietako Lagunekin  
**11:00** // Meza Andere Abesbatzarekin  
**12:00** // Dantzak Itxarkundiaren eskutik  
**12:00** // Gardeako adinekoari omenaldia eta luntxa karpan Arloteen kontzertuarekin

### 05.10 Igandea

**10:00** // Paella eta tortilla txapelketa.  
**11:00** // Meza Santa Lucia abesbatzarekin  
**14:00** // Paella janaria

### 05.02 Larunbata

**09:30-21:00** // Padel Txapelketa Mistoa.  
**11:00-12:30** // Santa Cruz Bolatoki Sari Nagusia.  
**11:00** // Kalejira Laudioko batzalarri kaletik  
**11:00** // Aurpegi margoak.  
**11:30** // Haur eta nerabeentzako ginkana partehartzailea.  
**11:30** // Kalejira San Roke Musika Elkartearekin.  
**14:30** // Herri Bazkaria eta DJ Bitter Kas  
**16:00** // Mus eta Tute III. Txapelketa

**BAR LAURAK**  
GOSARIAK  
PINTXOAK  
BAZKARIAK  
AFARIAK  
*Anzoko jaietan ere, egin gurekin topa!*  
Hiru gurutzeta 17, LAUDIO  
94 672 27 25

**GARDEAKO KIROLDEGIA**  
· Bokatak · Txibierroak · Errazioak ·  
**Ondo pasa jaietan!**  
605 76 84 25  
Gardea kalea 30, LAUDIO  
@polideportivo\_gardea



## LAUDIO Gardea auzoa

# Garayo eta El Resbalon: Gardeako epizentro

Maiatzaren leanjaurtiko dute Gardeako jaietako lehen suzeria. Aurtengoan, Garaio eta Arbaizagoitia familiek izango dute jai-giroa pizteko ardura. Auzoko jai batzordeak Bar Garayo eta Bar El Resbalon taberna historikoak omendu nahi izan ditu keinu honekin: “Gardean garai bat markatu zuten bi tabernek, XX. mendearen erdialdean. Topagune izan ziren, auzo-bizitzaren erdigune”.



Testua

**Aimar Gutierrez Bidarte**

Aldatzen ari zen auzoa. 1940ko hamarkadan sortu ziren Bar Garayo eta Bar El Resbalon. Ordu-ra arte auzoan ugariak ziren txakolindegien lekukoa hartu zuten biek. “Txakolindegia ez ziren tabernak, txokoak ziren, nagusiki bola-jokoan aritzekoak. Gardean hiru zeuden”, oroitu du Txutxi Arbaizagoitiak, El Resbalon taberna-

ko Maria Jesus Perez Mari-ren alabak.

Industrializazioak goitik behera aldatu zuen Gardea, auzoa nabarmen hazi egin zen, eta behar sozial berriak sortu ziren. “Beharrezkoak ziren egunero zabalduko zuten tabernak geroz eta gehiago ziren auzotarrak elkartzeko — azaldu du Iñaki Garaio — Auzotar horiek, gainera, elikagai eta bestelako produktuen beharra ere bazuten, inguruan ez zegoelako sal-

tokirik. Hori dela eta, bai El Resbalon eta bai Bar Garayo, tabernak izateaz gain, denda ere baziren”.

Bizilagunen enkarguei erantzun eta erantzun, egun batean faborea zena ohitura bilakatzen zen hurrengo egunean. Horrela eraiki ziren bi tabernak, bai eta bertako eskaintza zabala ere.

Santiago Garayok, esaterako, errekaduak jaso, Bilbon produktuak bildu eta tabernan saltzen zituen: abarkak, igitaiak, perfu-

meak... Otorduak eskaintzeari ere ekin zioten laster, inguruko fabriketako langileen beharrei ahalik eta hobekien erantzuteko. Otorduak eskaini ahal izateko Josefa Egiak, Santiagoren emazteak, orduak eta orduak eman zituen Garayo tabernako sukalde eta jantokian, lan nekaezinean.

Marik goizaldetik gauerdira zuen zabalik El Resbalon, Acero-seko langileek fabrikako sartu-irritenetan tragoren bat har zasetan.

Postaria iristen ez zen Gardeako auzo urrunetako gutunak biltzen zituen ere; bai eta telefono deiak jaso ere, eurena baitzen inguruko telefono bakantetako bat.

### Auzo bizia

Auzo bizia zen Gardea garai horietan. Bertako bizilagunen izaera komunitarioa gorai patu dute Txutxi eta Iñakik. Apostuetarako zaletasun handia zegoela oroitzen dute ere. Tiburcio Atxa eta Jua-

nitoren izenak aipatu dituzte beste guztien gainetik; uneoro bazterrak nahasten eta are eta erokeria handiagoa egiten ibiltzen zen auzoko bikotealaia. “Juanito Gardeako zubietako petrilengainetik ibiltzenen bizikletan atzeraka igota, erokeria bat!”, azaldu du Garaio, oraindik ere balentria horrekin txunditurik.

Bizitasun horren guztiaren adibide ziren Gardeako Jaiak. “Garai batean jaiak ikusgarriak ziren. Jendetza biltzen zen auzoan. Errepidea guztiz mozten zen, Bilboko Gran Vian baino jende gehiago bazten zen bertan”, azaldu du Bego Arbaizagoitiak, Txutxiren ahizpak eta El Resbalon-eko Mariren alabak. Odolean daramatza Gardeako Jaiak Begok, festetan jaiobaitzen bera, Santa Kurutze egunaren biharamunean.

Nola ez, Garayo eta Resbalon tabernak izan ziren jai-giro horren epizentroa. “Horrek bazuen bere alde txarra ere, festa egin genezakeen uneetan tabernan lanean egon beharra genuen beti, gurasoak laguntzen. Behin dantzaldira egin nuen ihesi eta aitak harpatu ninduen, bertan abandonatu

beharizan nuen nire dantza-bikotea; oraindik ere zor dizkiot azalpenak” oroitu du barre artean Txutxi Arbaizagoitiak.

#### Kapitulu bat ixtea

Gardearen transformazio batean sortu ziren bi tabernak, eta gizartearen aldaketen ondorioz itxi zuten biek ala biek. 1980 eta 1990eko hamarkadetan ugaritutako merkatal zentro handiek erabat aldatu zuten joko zelaia Garaioaren aburuz: “Gure tabernetan tratua oso humanoa zen. Gure gurasoek koaderno txo batean apuntatzen zituzten bizilagunen zorrak: ordain zezatela ahal zutenean. Merkatal zentro handiekin lehia ezinik ikusi zuten euren burua: prezio oso merkeak, orotariko produktuak...”

Gizartea azkar ari zen aldatzen eta, aspaldiko lotura komunitarioak geroz eta ahulagoak ziren garai batean, 1983ko uholdeekin egin zuten topo El Resbalon eta Garayo tabernekin. “Uholdeek dena eramane zuten, erakina bera ere. Gure amak 40 urtetan ez zuten behin ere El Resbalon itxi. Gutxi ziren ordurako hurbiltzen ziren

bezeroak, baina ala ere beti izan zuten atea zabalik. Kasualitate hutsa izan zen egun hartan ixtea erabaki izana”.

Urte luzeetako sakrifizioaren ondoren, uholdeek utzitako hondamendian aurkitu zuten erretiroa hartzeko aitzakia; Gardea auzoko historiaren kapitulu bat behin betiko itxiz.

#### Aitortza

Iñakik, Begok eta Txutxik pozik hartu dute Gardeako txupinero izateko ardura. “Hainbestekolana egin zuten gure gurasoei aitortza da honakoa, merezi zuten”. Auzoaren iraganean berriro ere murgiltzeko aukera eskaini die txupinero izateko gonbitak. Oroitzapenetan atzera egiten duten bitartean, etorkizunera begira jarri dira, eta balioan jarri dute Gardeako Jai Batzordeak auzoko festa biziberrietzeko egindako lan guztia.

Urduri daudela onartu dute ere, txupinazoaren protokoloa ez dutelako ezagutzen. Jaiak nola igaroko dituzten galderari umoretsu erantzun dio Iñaki Garaio: “Suziriak belarritik gertu eztanda egin ondoren, gor”.

## LAUDIO Gardea auzoa



**GARDEA  
OSPATZEN,  
AUZOAK  
PIZTEN!**

**GARDEA ERE!!**

**Maiatzak 1/2/3/10  
Anima zaitetz!**



**LAUDIO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# URDUÑA Otxomaio

## Hamaika arrazoi Otxomaioak zukutzeko



## Egitaraua

### 05.07 Osteguna

**19:00** // Udaletxea  
Otxomaio 2026ko kartel lehiaketako sari banaketa  
**19:30** // Udaletxea  
Ongi etorria azken urtean jaiotakoei  
**21:00** // Foru plaza  
Txupinazoa eta kalejira  
Beti jai Fanfarrearekin  
**22:30** // Foru plaza  
Erromeria Zutik taldearekin eta DJ Delgarro

### 05.08 Ostirala

**10:30** // Antzinako Andra Mariaren Santutegira Agintarien desfilea  
**11:00** // Antzinako Andra Mariaren Santutegia Meza nagusia  
**13:00** // Hirian zehar Kale dinamizazioa Etxebarria aita- seme trikitilarien eskutik  
**13:00** // Antzinako Andra Mariaren Santutegia Urduñako Abesbatzak abestutako meza

**13:30** // Foru plaza  
Santa Zezilia musika banda

**18:00** // Foru plaza  
Dantza plaza Eingo taldearekin

**21:00** // Foru plaza  
Burbuilak eta GwaYa Reggae taldeen kontzertua

**23:00** // Foru plaza  
Orkestra La Resistencia eta DJ Varro

### 05.09 Larunbata

**10:30** // Foru plaza  
XVII. Patata tortilla lehiaketa eta XII. Paella lehiaketa

**11:30** // Antzinako Andra Mariaren Santutegia Arrastariako agintarien erromesaldia

**12:00** // Antzinako Andra Mariaren Santutegia Meza eta Arrastariako Botoaren berritza

**13:00** // Hirian zehar Animazioa Oilarrak taldearekin Etxebarria aita- seme trikitilarekin

**16:00** // Kioskoa  
DJ KI tardeoa

**17:15** // Zezen plaza  
Herri kirolak kuadrillen artean

**19:00** // Foru plaza  
Dantzaldia Nueva Presión Mariachi taldearekin.

**19:30** // Zezen plaza  
Biganxak askatzea

**21:30** // Foru Plaza  
Feos Pero Majos taldearen kontzertua.

**23:30** // Foru plaza  
Oxabi erromeria eta DJ Blessive.

### 05.10 Igandea

**11:30** // Mikel Deuna auzoa  
Saratxoko auzokideei harrera.

**12:00** // Zezen plaza  
Zaldiz ibiltzeko aukera.

**12:30** // Hirian zehar  
Erraldoi eta buruhandien kalejira.

**13:00** // Hirian zehar  
Kaleko musika

# URDUÑA Otxomaio

dinamizazioa Akelarre txarangarekin

**17:00** // Harresi barruan

Erauntsi Dantza Taldearen alardea

**18:00** // Udal pilotalekua

Pilota partidak: eskualdeko pilotariak eta Titin III Merino I vs Goñi II - Alduntzin

**20:00** // Foru Plaza

Puro Relajo

## 05.11 Astelehena

**10:30** // Foru Plaza

Puzgarrien jolas parkea

**12:30** // Hirian zehar

Buruhandiak

**14:30** // Foru Plaza

Haurrentzako herri bazkaria

**15:30** // Foru Plaza

Familientzako ikuskizuna, Gora Bihotzak

**16:30** // Foru Plaza

DJ Xaibor.

**18:30** // Foru Plaza

Playback lehiaketa

## 05.13 Asteazkena

**12:30** // Santa Maria parrokia

Jubilatuentzako meza.

**14:30** // Jubilatuen etxea

Bazkaria Urduñako jubilatuentzat.

**17:00** // Jubilatuen etxea

Bingoa

**19:00** // Jubilatuen etxea Dantzaldia.

## 05.15 Ostirala

**10:30** // Hirian zehar

Kaleko dinamizazioa Haizedoinu taldearekin.

**12:00** // Santa Maria parrokia

San Isidro meza.

**17:30** // Udal pilotalekua

Saskibaloit partidak, Bedarbide taldeak antolatuta

**19:00** // Hirian zehar

Kalejira Sakatu elektrotxarangarekin

**20:30** // Harresi barrua

BiHotsak abesbatzaren kontzertua

**22:00** // Foru Plaza

Kuadrillen afaria

**23:00** // Foru Plaza

Niños de Plazoleta-ren kontzertua

**01:30** // Foru Plaza

Kaparrak eta DJ Pakita Penas.

## 05.16 Larunbata

**09:00** // Zezen plaza

Kontzentrazio Hipikoa

**10:00** // Gamako lakua

XXV. Haurren arrantza lehiaketa

**12:30** // Harresi barrua

VIII. Aurreku eta suelto lehiaketa.

**13:00** // Hirian zehar  
Kaleko dinamizazioa Santa Zezilia Bandaren eskutik.

**15:00** // Gernika Plaza

Herri bazkaria Mugalde elkartearen eskutik

**17:30** // Gernika Plaza

DJ Tardeo

**18:00** // Bolatokia

XIX. Otxomaio Bolo

Txapelketa

**19:30** // Hirian zehar

Kaleko dinamizazioa

Txaranga Izenberkuak taldearekin.

**19:00** // Santa Maria

Parrokia

Aiaraldeko Abesbatzen

kontzertua, Opera eta

Zarzuela

**22:00** // Foru Plaza

The Laars, Nueva Etapa orkesta eta DJ Jaure

## 05.17 Igandea

**11:00** // Bolatokia

XIX. Otxomaio Bolo

Txapelketa

**12:00** // Antzinako Andra

Mariaren Santutegia

Meza nagusia eta

Saratxoko auzokideen

botoaren berritza

**13:00** // Hirian zehar

Kalejira Santa Zezilia

Bandaren eskutik

**13:00** // Hirian zehar

Kalejira Santa Zezilia

Bandaren eskutik

**14:30** // Foru Plaza

Otxomaio Jaietako azken

mokadua, Marmitaren

Elkartearen eskutik

**14:30** // Foru Plaza

Deriba taldearen

kontzertua

**17:30** // Udal Pilotalekua

Urduñako Pilota Eskolako

ikasleen pilota partidak

**19:00** // Foru Plaza

Txapela Brava

**21:00** // Foru Plaza

Bihotzaren erreketeta eta

jaien amaiera



SORMENEZKO, EGUNGO ETA  
KALITATEZKO SUKALDEA

*Esperientzia gastronomiko desberdina*

Aurez erreserbatzea gomendatzen da

Kale Barria, 13 Urduña · 945 38 48 92

APARTAMENTOS TURÍSTICOS

*Ciudad de Orduña*

6 OSTATU  
HIRIGUNEAN  
FORU  
PLAZAN

Erregistro zenbakia: E BI 687-692

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

www.apartamentosorduna.com · 621 209 221 · info@apartamentosorduna.com



**BATZOKI!**  
TABERNA

946 09 56 49

Burgos Kalea, 20

48460 Orduña (Bizkaia)

# URDUÑA Otxomaio

## *Txomin Robina, 'Txitin'*

Martxoaren 27an zendu zen Txomin Robina Orduñako herritarra. Jende gehienak eta bereziki gazteek Txitin izendatzen zuen, berak horrela deitzen zuelako, eta hiriko esparru askotan ekarpen handiak egin zituen bere izaera berezi eta eskuzabalaz. Hori dela eta, senideek txupinazoa jaurtiko dute bere ohorez.



Testua  
**Altor Aspuru Saez**

Txomin Robina 76 urterekin hil zen martxoaren 27an eta Orduñan hutsune handia utzita. Izan ere, ondare komunitarioan azterna handialaga du. Besteak beste, XII. mendeko Gertakari Oneko baseliza berri eta konpondu zuen, eraitsi nahi baitzuten etxebizitza gehiago eraikitzeko. Horrez gain, Orduñako buruhandiak berreskuratu eta mantendu zituen urte luzez eta Bihotza pertsonaia bera asmatuz, kontakizun herrikoietan oinarrituta. Eta ez hori bakarrik, eskuzeraiki zuen Otxomaioetan erretako lehen Bihotza. Halaber, lehenbizikoz Olentzero kalera ateratzen lagundu zuen, berak egin zuen eta. Gazteriarekin harreman estua zuenez, Gaztetxean ere lan handia egin zuen.

Familiak eta lagunak oroitu duteenez, Txominen izaera gogorra zen eta batzuetan zaila egiten zitzaion

beresentimenduak hitzez azaltzen, baina dena ematen zuen besteengatik, maiz bere ongizatea ahaztuta. “Adibidez, baratzean landatzen zuen gehiena hurbilekoentzat zen”. Langilea, autodidakta eta trebea zen eskulanetan eta borondatea ez zitzaion falta.

Txosnen esparruan ere aitzindaria izan zen. Liburuzaina zenez, txosna jarri zuen bitarteko ekonomikoak eskuratzeko eta liburu bilduma hobetzeko. Hain zuzen, liburuak eta historia ziren bere pasioetako batzuk. Berez, aurpegi ezaguna zen Estatuko hainbat artxibategitan eta batzuetan ehunka urte zituzten liburuak etxera eramaten ere uzten zioten, bazekiten arduraz zainduko zituela eta.

Bere jatorrizko hiriarenganako amodioak bultzatuta, Orduñaren historia arakatu zuen artxibategi ugartan eta borroka luzea izan zuen Euskaltzaindiarekin, bere us-tez, Urduñatoponimoa asmakizuna baitzen. Senideek azaldu dute hain-

bat dokumentu historiko ikertu zituela eta bere ondorioa izan zela Urduña hitza Orduña izenaren ahozkeraren arabiztua zela.

Hori ez zen izan lideratu zuen gurutza bakarrik. Garaibatean ezpata batekin ateratzen kalera, irudikatzeke jarri nahi zioten isuna Gertakari Oneko baselizan farola bat aldatu eta hobetzeagatik inori baime-na eskatu gabe. Gatazkak gatazka eta borrokak borroka, ez da leukurkorik geratu bere aurka.

### Technoaren aitona

Dena den, bere izaera berezia islatzen duen arloetako bat da techno musika. trance generoaren zale borrokatua zen Txomin eta 1990eko hamarkadan hasi zen diskotekaz diskoteka joaten. Ez zuen bakarrik egin ezpada 20 urte gutxiago zuen kuadrilla batekin. “Guliburutegiko erabiltzaileak ginen eta maiz hara jotzen genuen Txomini adarra jotzeko. Noizbait belarritik heldu zigun eta gure atzetik ateratzen korri-

ka, baina beti saiatu zen gu ikasle onak eta irakurzaileak bilakatzen. Maitasun handia genion eta nagusitzen joan ginenean, Txominen beste alde bat ezagutu genuen tabernetan. Handik gutxira hasi ginen diskoteketara joaten berarekin”.

Diskotekako kuadrillak hitz onak baino ez ditu Txominentzat: “Gasteizen, Bilbon, Madrilen, La Ruta del Bakalaon Valentzian, Ibizan, Saloun... Leku askotan ibili ginen berarekin eta bere izaera enpatikoari esker ezagunak ginen. Jendea harritzen zen bera ikustean eta berak lortzen zuen guztien lagun izatea”.

Adiskideek azpimarratu nahi dute kide aparta zela, atsegina, berezia eta dena uztartzeko gai. “Batzutan gu igandean etxera heltzen ginen goizeko zortzietan eta bera etxera joan ordez, autobusa hartzen zuen Valladolideko artxibategi batera joateko ikertzera. Une horietan barre egiten genuen, baina orain balioan jarri nahi dugu”.

Bere iloba Unai Bikandik gogora

ekarri du technoaren munduan ikono bat zela: “Columbus diskotekan podium bat zen berak erabiltzeko nahi zuenean, berdin zuen nork baliatu nahi zuen, berak zuen lehen-tasuna”.

Mitioa izateak Fabrik edo Sonar bezalako esparruak ireki zizkion eta sare sozialetan ere milaka jarraitzaile zituen. Osasunak aukera eman zion arte eutsizion dantza eta musikari eta 72 urterekin Monegroseko jaialdira joan zen.

Lagun, senide, auzolaneke kidea joan zaigu martxoan, baina bere itzala luzea da hirian egin dituen lan guztietan, irakatsi duenarekin —autodidakta izanik— eta sortu dituen une berezi askorekin.

Hirian utzitako aztarnaketa bere oroitzapenek iraungo dute eta bere ohorez egindako buruhandiak jarraituko du dantzatzen urtero Otxomaioetan, Txominek gogoko zuen moduan, Bizkaiko Jaurerriko hiri bakarraren txikiaketa helduak alaitzen.

## URDUÑA Otxomaio

# Hiru eguneko jaiarekin ospatuko du Bihotza Konpartsak bere 25. urteurrena

Maiatzaren 1, 2 eta 3an egingo dituzte jarduerak eta erraldoi eta buruhandien erakusketa ere atondu dute Alondegian.

Testua

**Aimar Gutierrez Bidarte**

25 urte igaro dira Urduñako gaztetalde batek berriki zendutako Txomin Robinaren lekuko hartu eta hiriko erraldoi eta buruhandien kudeaketa bere gain hartu zuzenetik. Hala sortu zen Bihotza Konpartsa, eta bilakaera oparoa izan du orain arte. Hiriko figura historikoak kudeatzen hasi ziren, baina laster ekin zioten berriak sortzeari.

“Erraldoi eta buruhandi berriguztiak Irungo Xabier Garate eskultorek eraiki ditu, gaur egun jubilatua dagoena”, azaldu dute konpartsako kideek. Modu horretan iritsi dira gaur egungo formaziora: lau erraldoi eta zortzi buruhandi dituzte orotara, eta baita ‘Batibomba’ ezaguna ere, jaietako ikur esanguratsuenetako bat bilakatu dena, “haurren gogokoena”, Bihotzako kideen hitzetan.

Buruhandien erdia 1950. hamarkadan zeuden figura historikoen erreplikak dira. Beste laurak, aldiz, erabat berriak dira, hiriko pertsonailetan inspiratutakoak. Horien artean dago Txomin Robina bera irudikatzen duena, konpartsaren sorrera motibatuzuen pertsonaren omenez espresuki eginikoa.

Figura horiek guztiekin kalejirak egitean datza konpartsaren egiteko nagusia. Urduñako jai egun esanguratsuetan ateratzen dira, Otxomaioetan bereziki, baina kanpora ere joaten dira, erraldoi eta buruhandiak Euskal Herriko beste txoko batzuetan erakustera. Aurreratu dutenez, aurten Bermeon, Santutxun edota Barakaldon arituko dira besteak beste.

Baina ez dira kalejirak antolatzerara mugatzen. Txosna jartzen dute Otxomaioetan, egitarau propioarekin, eta dagoeneko urte batzuk darmaatzate Gabon zahar aurreratua antolatzen, urtea jai giroan agurtzeko.

Horregatik guztiagatik, konpartsako kideek “oso positiboki” baloratu dute mende laurden honek emandakoa, herritarrak ere egiten dituzten jarduerekin pozik daudela iritzita.

## Hiru eguneko egitaraua

25 urteko ibilbidea ospatzeko, hiru eguneko egitaraua prestatu dute Bihotzako kideek. Maiatzaren



lean hasiko dira zinema proiektzioarekin, gaueko bederatzietan Harresi barruko parkean. Biharamunean egun osoko egitaraua izango dute Foru plazan. Puzgarriak, umeentzako jolasak eta buruhandien irteera egingo dituzte goizean, bingoa eta parrillada arratsaldean eta Leticia Sabaterren eta Onda Futuraren emanaldiak, aldiz, gauean. Bukatzeko, erraldoien eta buruhandien kalejira egingo dute igande eguer-

dian, eta bazkaria egingo dute jarrarian. Horrez gain, erraldoi eta buruhandien erakusketa ere atondu dute Alondegian, maiatzaren 17ra arte ikusgai egongo dena, laneguntan, espazioaren ohiko ordutegian.

## Belaunaldi aldaketa bermatuta

Etorkizunaz galdetuta, Bihotzako kideak lasai daude, belaunaldi aldaketa bermatuta dutela uste dutelako, elkartean adin ezberdineta-



**“Oso positiboki” baloratu dute 25 urte hauek emandakoa”**

ko bazkideak baitaude. Zaletasuna, gainera, gora egin duela uste dute, COVID-19aren pandemiaren ostean batez ere, kalejiretara duela urte batzuk baino jende gehiago bertaritzen dela nabarmenduta.

Aurrera begira, orain arteko dinamikarekin jarraitzea da konpartsako kideen asmoa, baina ez dute buruhandi berriren bat egitea baztertzen, 2017an estreinatu baitzuten azkenengoa.

# URDUÑA Otxomaio

## Ivan Fandiñoren omenezko zekorketak egingo dituzte Urduñan, Turtziozen eta Bilbon



Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Duela ia bederatzirte hil zen Ivan Fandiño toreatzaile urduñarra eta bere itzala luzea da hirian. Horren adibidea da maiatzaren 16an egingo duten zekorketa. Haren omenez egindako bosgarren memorialaren barruan izango da eta Udalak babestu du ekimena.

Berez, jarduera 18:30ean hasiko da eta zaldirik gabeko zekorketa izango da Manuel Dominguez eta Manuel Leonekin. Sarrerak 20 euro balio du aurretik eta Bar X tabernan, gasolindegian, Alondegian edota turismo bulegoan eros daiteke. Leihatilan eskuratuz gero, aldiz, 25 euroko prezioa izango du.

Beste hiru hitzordu gehiago osatuko dute omenaldi zikloa. Hurrengo zita Turtziozen izango da ekainaren 27an eta han Iñigo Northe eta David Cob izango dira protagonistak.

Urduña eta Turtziozeko ekitaldiak kanporaketak izango dira eta Bilboko Aste Nagusian egingo dituzte zezen plazan finalerdiak abuztuaren 24an eta finala, aldiz, 28an.

### Sinbolismoa

Antolatzaileek azaldu dutenez, memorialaren kartela Ivan Fandiñori lotutako ikonografiaz bete nahi izan dute eta horregatik irudi nagusia da urduñarra bera, 2012an

Bilboko zezen plazan erabilitako jantziarekin, zeinak lauburuak zituenez josita.

Ez da lehen aldian kartel batek Fandiño ardatz hartzen duela. Hil eta gutxira Bilboko Aste Nagusiko Zezenketa Orokorren kartelaren protagonista bilakatu zuten. Toretzaile urduñarra azaltzen zen irudiaren erdian, atzean frontoi baten horma zuela, pilotaria izan baitzen Fandiño gaztetan.

Berez, gogoratu beharra dago Fandiño hiritar garrantzia izan dela. Esaterako, 2015ean otxomaioetako pregoilaria izan zen eta 2017an Landetan larririk auritu eta hil ondoren, urduñarrek jarduera ugari antolatu zituzten bere omenez. Solasaldiak, zezenketak eta pilota partidak ere egin zituzten, pilotari oso ona ere izan baitzen.

Eskualdeko herri gehiagok aitortu zuten Fandiñoren maila eta 2017ean bertan Orozkoko sanantolinetan Agur jauna abestia kantatu zuten zekorketan bera oroitzeko. Laudion ere berari buruzko argazki erakusketa antolatu zuen Mazantini elkarteak.

2021ean hiriko herrigunean bere eskultura ere jarri zuten eta jende ugari zein Santa Zezilia Bandak parte hartu zuten inaugurazioan.

2023an Jennifer Harispe argazkilaria Corazón y entregaliburua argitaratu zuen berari egindako 72 argazkirekin.

## Pilotaren mitoak elkartuko dira Urduñako Jai Alai Pilotalekuan



Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Goi-mailako pilota partidez gozatzeko aukera egongo da maiatzaren 10ean Urduñako Otxomaio Jaietan. Ohiko hitzordua bilakatu dajaietako lehenengo igandean pilotalekura bertaratzea, eta aurten ere ez diote zitari hutsik egingo Jai Alai Pilota Elkarteko kideek.

### Tokiko pilotariak

“Gazteak pilotalekura erakaritzea” izan da azken urteetan Jai Alai Pilota Elkartearen xedea. Horretarako, arrakastatsua suertatu den formatua errepikatuko dute beste behin ere: tokiko pilotariak kantxara ateratzea.

Hain zuzen ere eskualdeko ordezkari zabal batek osatuko du Aiaraldeko kirolarien kartela aurtengo Otxomaioetako jaialdian. Izan ere, Urduña, Orozko, Amurrio, Laudio, Arrankudiaga eta Delikako kirolariak egingo dute bat partidetan. Herri bakoitzeko bana, sei guztira.

Berritasun gisa, ordea, jokatzeko era aldatu egingo dute zertxobait. Bi bikoteen arteko lehia hutsaren orde, hiru bikoteen arteko kiniela jokatu dute. Tanto bako-

## Maiatzaren 7an eskualdeko gazteak eta elite mailako pilotariak arituko dira Urduñan

tzaren ostean tantoa galtzen duen bikotea kantxatik atera beharko da, eta hirugarren bikotea sartuko da norgehiagokan. Tanto bakoitzean, huts egiten duen bikotea aldatuz joango da beraz, 22 tantora iristen lehenek irabaziko dute kiniela.

Hauek dira lehiari arituko diren hiru bikoteak: Gorostizaga-Barbara, Gonzalez, Ayesta eta Beaskoetxea-Albizuri.

### Pilotaren mitoak

Aiaraldeko pilotariak euren lanekin ostean elite mailako gizonen zekorketa partidak gozatzeko aukera egongo da. Eskupilotaren mitoak elkartuko dira Urduñako Jai Alai Pilotalekuan: Titin III, Merino I, Goñi II eta Alduntzin. Augusto Ibañez *Titin*-ek eta Mikel Goñik dagoeneko ezagutzen dute zer den Otxomaioetako jaialdia, eta ikuskitzuna ziurtatuta egongo da.

Maiatzaren 7ko pilota partidak 18:30etan hasiko dira. Sarrerak 8 euroko prezioa izango du, baina klubeko bazkideek 5 eurotan eskuratu ahaliko dituzte. Gazteak pilotalekura animatzeko ahaleginetan 16 urtetik beherakoek doan izango dute pilota partidez gozatzeko aukera.

URDUÑA Otxomaio

# Auzolanean eraikitako herri bazkari erraldoia

Mugalde Elkartearen Otxomaioetako herri bazkariaren 25. edizioa ospatuko dute datorren maiatzaren 16an. Auzolanean eraikitako ekimenak 500 lagun baino gehiago elkartzen ditu urtero Gernika Plazan.



## Testua Aimar Gutierrez Bidarte

Otxomaioetako ezinbesteko zita bilakatu da Mugalde Elkarateak antolatutako herri bazkaria. Auzolanean eraikia, urtez urte Gernika Plaza lepo betetzen duen bazkaria da. 1999an antolatu zuten lehen-dabizikoz, eta 2024an ospatu zuten ekimenaren 25. urteurrena. COVID-19aren pandemia tarteko, ordea, aurtengoa izango da 25. edizioa. Edizio borobila. Antolakuntzan murgilduta dira dagoeneko Izaskun Biguri eta Iruñe Azkarraga, Mugalde Elkarteko kideak.

### Hastapenak

Gernika Plazara estu lotua dagoen arren, Foru Plazan ospatu zituzten herri bazkariaren lehen hiru edizioak. “Nolabaiteko sinbiosia sortu zen ekimen herrikoi berria antola-

tzeko nahia genuen Mugalde Elkaratearen eta herriko sukaldari kuadrilla baten artean”, azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari Bigurik.

Lehen unetik erabatekoa izan zen arrakasta. Lehenengo edizioan ia 200 lagun elkartu ziren. “Hasiera-hasieratik oso bazkari antza izan da hau; adin eta kolore politiko guztietako herritarrak bildu izan gara, Urduñan bakarrik gerta zitekeen hau”, aldarrikatu dute elkarteko bi kideek.

### Gernika Plazara jauzia

“Logistika” arazoiek bultzatu lekualdatu zuten herri bazkaria Foru Plazatik Gernika Plazara. “Euria egin zuen edizio batean, ohartu ginen Foru Plazako hastialak ez zirela aterpe egokia. Oso sakabanatuta daude, eta Gernika Plazan aurkitu genuen horretarako toki egokia”, azaldu du Azkarragak.

Ia berrehun lagunekin hasi zen herri bazkaria bostehun plateren langa gainditua zuen Gernika Plazara lekualdatu zirenerako. Orduetik, hori izan da bazkarian elkartu daitezkeen lagun muga. “Kopurua ezin dugu gehiago handitu, ez gaitasunik ez dugulako, baizik eta Gernika Plazako aterpeetan jende gehiago sartzen ez delako”, nabarmendu dute antolatzaileek. Azken edizioetan gainera ondo aprobetxatu dituzte Gernika Plazako hastialak, euria eta ekaitzarekin kointziditu du bazkariak eta, baina giroa beti izan da beroa.

### Menua

“Bereziki eskertu beharrean gaudesukaldariek hartzen duten lana”, azpimarratu dute Bigurik eta Azkarragak. Lehen platerra, bigarrena, postrea, ardoa, ogia eta bazkalosteko kopa aukeran. Edizio guztietan

errepikatu dituzte patatak errioxar erara, bigarren platerak, ordea, al daketa gehiago izan ditu: arkume saiheskiak, arkume gisatua, haragi gisatua...

Tokiko produktuak lehenesten dituztela azaldu dute antolatzaileek: haragia Urduñako abeltzainei erosten diete, patata arabarra, noski, eta ardoa eta ogia ere hirian bertan erositakoak dira.

### Auzolanean eraikia

Baina sukaldariek bakarrik ezingo litzake neurri honetako bazkaririk antolatu. Guztira 50 lagun baino gehiago batzen dira auzolanera. Askok urtero-urtero errepikatzen dute, eta lanak ondo finkatuta dituzte. Iruñe Azkarragak uneoro besapean daraman koadernoan urratsez urrats ditu jasoak antolantzan kontuan hartu beharreko guztiak. Milimetrikoki neurtu-

tako makineria da. Badira 200 patata kiloak zuritzeaz arduratzen direnak, ogia mozten dutenak, botilak zabaltzen dituztenak, mahaia jartzen dituztenak, garbiketaz arduratzen den Fairy Komandoa... Bada 500 mahaikideak aulkietan ordentzeaz arduratzen denik ere.

Apirilaren 25ean jarriko dituzte salgai tiketak, eta azken urteetan bezala, egunean bertan agortuko direla dio Azkarragak: “Eguerdian jartzen ditugu salgai eta goizeko lehen ordutik dago ilara zain”.

Beste edizio arrakastatsu baten atarian da, beraz, Mugalde Elkaratearen Otxomaioetako herri bazkaria. Eguraldi ona espero dute antolatzaileek, arkupeetatik atera eta Gernika Plaza alderik alde betetzeko. Edonola ere, eguzkitan zein euripean, auzolanaren su-epelean koiznatutako bazkari ederraz gozatuko dute berriro ere urduñarrek.

# URDUÑA Otxomaio



## “Bi minututan esan daiteke esan beharrekoa: Gora Otxomaio eta gora Ama Birjina!”

**EMILIO PEREZ**, URDUÑAKO ABADEA, ETA **JUAN EDUARDO IRIONDO** URDUÑAKO KRISTOREN ESKOLA SANTUKO KIDEAK DIRA. OTXOMAIOTAKO PREGOILARI IZATEKO IZENDATU DUTE ESKOLA, NOIZ ETA BERE 350. URTEURRENEAN.

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**Otxomaioetako pregoilari izateko hautatua izan da Kristoren Eskola Santua. Eskolako kide bezala, nola hartu duzue gonbita?**

*Emilio Perez:* Batzuei ilusioa egin die, beste batzuei ez horrenbeste. Eskolak ez du pausorik egin, imintziorik ere ez, horren alde. Bada guk baino gehiago merezi duenik. Egin-kizun batzuk ditugu herrian, baina anonimatoan ibiltzeko txanoak ditugu guk. Gurea xedea ahalik eta modu apalenean eta alaienean egiteko gaude, inolako harrokeriarik gabe.

*Juan Eduardo Iriondo:* Holan erabaki dabe eta eskertzekoa da. Ez gulgaitik, baizik eta 350 urte hauetan hemen egon dan jendeagatik. Aitor-tza da historian zehar Eskolatik pasa diran guztiei, baita Eskolaren inguruan laguntzen aritu diren horiei ere. Eskolaren ondarea bizirik jarraitzen duela onartzea da aitor-tza.

**Pentsatu duzue udaletxeko balkoitik botako duzen mezuan?**

*J.E.I.:* Hain zuzen Otxomaioen erdian ospatzen dugu gure urteurrena, maiatzaren 11n betetzen dira 350 urte Kristoren Eskola Santua sortu zutenetik. Oso momentu egokia da hori gogoratzeko. Otxomaioak momentu egokia dira ospakizunerako, herria egiteko, batzuk besteegaz egiteko, berba egiteko urtean topatzen ez doguzan bizikideegaz... Hori ba da gauza ona.

*E.P.:* Otxomaioetan hain justu Kristoren Eskola, nola edo hala sakabanatu egiten da: batzuktistulariekin, beste batzuk koroekin, bes-

teak elizkizunetan, Bihotza konpartsan... Kristoren Eskolak Otxomaioetan ez du eginkizun berezirik ohikoan. Gutako pare batek hartuko dute hitza udaletxeko balkoitik poza eta esker ona adierazteko. Bi minututan esan daiteke esan beharrekoa: Gora Otxomaio eta gora Ama Birjina!

**Maiatzaren 11 da Eskolaren urteurrena, ekitaldi berezirik antolatuko duzue?**

*E.P.:* Ospakizun nagusia maiatzaren 17an egingo dugu. Maiatzaren 11 astelehena da, maiatzaren 8a egun handia, maiatzaren 9an Arrastariakoak datoz, 10ean Saratxokoak... Saltsa osoaren erdian da urteurrena.

*J.E.I.:* Horregatik azken domekan egingo dugu ospakizun nagusia. Urteurreneko ekintzak, aldiz, abendura arte luzatuko ditugu.

**Zer nolako ekarpena egin dio Kristoren Eskola Santuak hiriri?**

*E.P.:* Herri osoarentzat parte hartzerako bide bat izan da.

*J.E.I.:* Gure parte bat da, herriaren parte da.

*E.P.:* gure helburu nagusia Kristori esker askatasunez eta bizi-pozez bizi leikela erakustea da, gauzak ondo eginez. Gure indarra ez da agortzen elizako hormetan. Bestelako zabalkunde bat lortu du Urduña-ko Kristoren Eskolak. Ez dugu akaso beti asmatu, baina ez gara beste talde batzuk bezain itxiak.

*J.E.I.:* Argi daukagu zertara gatozen. Gure helburua gu hobeto bizitzea eta gure ingurukoak hobeto bizitzea da; hori da gure Jaunaren proposamena.

## Babestutako edukia

# BASA ZIKLOA

## LEHENENGO TOPAKETA

Bazkideek 8€ / Ez-bazkideek 10€  
Langabetu eta ikasleek 6€

AIARALDEA  
EKINTZEN  
FAKTORIAN

Errotari kalea 4-8, pabillioa  
01400 LAUDIO (Araba)

APIRILAK

25

ZAPATUA

**11:00 Ziklo hasiera: Ibilaldia Aiaraldean**

**+ ekintza artistikoa**

Idoia Zabaleta + Garaion Sorgingunea

+ Jasone Mitxelorena

Faktoriatik aterako gara oinez Luiaondorantza. 40bat minutuko ibilaldia Idoia Zabaletaren proposamen artistiko batekin. Basa eremu bat aukeratu dugu, oinak bertan sartuz, solasaldi inspiratzaile bat entzuteko. Jasone Mitxelorenaren proposamenaz gozatuko dugu eta ondoren dastaketa goxo batekin Garaion sorgingunetik sortutako eraikuntza bat landuko dugu elkarlanean. Arratsaldean buelta Faktoriara.

\*EKARRI ARROPA EROSOA ETA ZIKINTZEKOTAN BAZABILTZA, ALDATZEKO BEHARKO DUZUNA\*

**14:00 Dastaketa**

Faktoriako Elikadura ildoak prestatuta

**18:00 Lurdes Iriondo, ez gera alferrik pasako**

**dokumentala**

**+ Solasaldia** Inge Mendioroz + Idoia Garces

LURDES IRIONDO  
**EZ GERA  
ALFERRIK  
PASAKO**

**19:30 Amaia Miranda kontzertua**

**20:30 Berba labanakaz kontzertua**

# Kirola



## BOLO AIARRARRA INOIZ BAINO BIZIAGO

Hastear diren herri eta auzoetako festetako protagonistetako bat izango da bola-jokoa, zalantzarik gabe. Tokiko kirola loraldi betean dago. Asteburuan jokatu dira Arabako Bola-joko Txapelketako finalak Luiaondoko bolatokian, Bea Isasik eta Joseba Mirasek jantzi dute eskualdeko bolarien txapela.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Loraldi betean dago Aiaraldeko tokiko kirola: Bolo aiararra. Berriki jokatu dute Arabako Bola Txapelketako finala Luiandon eta kirol zahar honek bizi duen gaztetasun berriaren erakusleiko bikaina izan da. Ate joka dauden festa eta ospakizunetan ere presentzia nabaria izango du bola-jokoak. Aiara, Gardea eta Otxomaioetako jai-egitarauetan

presente egongo dira tokian tokiko txapelketek.

### Bolatokiak bizi-bizi

Kirolaren pizkundeak azpiegitura zabal eta sendoa du atzetik. Garai batean askoz gehiago baziren ere, gaur egun hamar bolatoki baino gehiago daude eskualdean, erabateko funtzionamenduan: Beotegi, Kexaa, Tertanga, Urduña, Laudio, Okondo, Luiaondo, Gardea, Artziniega... Baina nekez mantendu daitezke zutik bolatokiak hauen gaineko

ardura duten klubengatik etengabeko lanik gabe.

Bola-jokoari lotutako topikoak eraisteko lanean ere ari dira Aiaraldeko Bola Klubak. Gizonezkoen eta adinekoen kirol gisa hartu izan da maiz bola-jokoa. Gazteen eta emakumeen eskutik ari da altxatzen, ordea, olatu berria.

Eskualdeko ondarea mantendu eta hedatzeko asmoz Aiara-ko bola-jokoaren oinarriak bildu eta azaltzen dituen bideoa ekoiztu berri dute. Aiaraldeko Kuadri-

llak sustatutako egitasmoa izan da honako hau, eta eskualdeko klub guztien babesaren izan du.

Luiaondoko Otueta Gizarte etxean proiektatu zuten estreinakoz bideoa, iragan abenduan. Aiaraldeko bolatoki klubetako presidente guztiek parte hartu zuten ekitaldian, baita dozenaka herritar eta zale ere. Bideoak eskualdeko bolatoki guztien birpasa eskaintzen du, eskualdeko kirolaren oinarriak azaltzearekin batera. Iñigo Pinedo kuadrillako presidentek azaldu zuenez, he-

rritar ororen eskura egongo da ikus-entzunezko pieza, bolatoki guztietan instalatuko dituzten QR kodeen bidez. "Bolatokietara bertaratzen den orok gure kirolaren arauak eta bitxikeriak ezagutzeko aukera izatea da xedea".

### Bea Isasi eta Joseba Miras

Aparteko sorpresarik gabe ebatzi da Arabako Bola-joko Txapelketa aurten. Norgehiagoka guztian zehar liderrak izan diren jokalariek jantzi dute txapela: Bea Isasi emakumezko-

## Kirola

tan eta Joseba Miras gizezkoen artean.

Asteburuan jokatu ziren finalak Luiaondoko bolatokian, otsailean abiatutako tiraketa maratoiari amaiera emanez. Okondo, Laudio, Beotegi, Kexaa, Tertanga, Urduña, Artziniega eta Luiaondoko bolatokiak izan ditu geltoki txapelketak, eta 56 parte hartzaile bildu ditu orotara.

Larunbat arratsaldean eta igande goizean izan ziren Luiaondoko tiraketak. Ohikoan bezala, bolari bakoitza nahi zuten bertaratu ahal zen bere zortzi jaurtiketak egitera. Gauzak hala, larunbateko txanpan jokalariek gehienek jaurti zuten arren, lehen postuetan zeudenek igandera arte itxaron zuten azken indarrak neurtzeko. Ikusle gehienak ere orduan bildu ziren, lagunarteko giroan, eta barre, txalo zein oihu artean animatu zituzten kirolariak. Elkartasun keinuei ere utzi zieten tartea, Tubos Reunidoseko langileen aldeko bandera presente egon baitzen lehiaketako azken txanpa osoan zehar, eta baita horren osteko sari banaketan ere.

Bea Isasi 655 punturekin gailendu zen sailkapenean. Bere atzean geratu ziren Estrella Alonso eta Gurutze Badillo, 612 eta 594 punturekin, hurrenez hurren.

Gizezkoen artean, aldiz, Aitor Parrilla eta Carlos Olabarrieta geratu ziren Joseba Mirasen atzetik, 689 eta 683 punturekin. Txapelkunak, aldiz, 714 puntuko marka lortu zuen.

Dena dela, askoz sari gehiago banatu zituzten txapelketaren amaieran, sailkapen orokorrean nabarmendu zirenei edota herri bakoitzeko tiraketetan gailendu ziren horiei.


#### Zuzeneko emisioa

Iaz bezala, Aiaraldea Komunikabideak zuzeneko emisioa egin zuen larunbat zein igandean, tiraketa guztien berri bolatokitik bertatik emanez.

#### Hurrengo geltokia, Okondo

Amaitu da txapelketa, baina lehia eta zaletasuna ez. Laudioko bolatokitiko San Prudentzio Torneo izango da eskualdeko bolarien hurrengo zita, ostiral eta larunbatean jokatuko dena.

Dena dela, etorkizunera begira, eskualdeko zaleek beste data bat dute egutegian markatuta: 2027ko uda. Izan ere, Okondon egingo da datorren urteko Euskadiko Bola Txapelketa, 50. edizioa izango dena, gainera.



elkarlan asesores



[www.elkarlanasesoria.com](http://www.elkarlanasesoria.com)

2025  
Errenta-aitorpena.

#### Zure aitorpena esku onetan

30 urte baino gehiago enpresei eta partikularrei aholkularitza fiskala ematen

Lamuza, 12 · LAUDIO  
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO  
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO  
Tel. 94 603 91 65

# Herriko plaza



## Mire

Hartu errezetarik gabeko muxu eta besarkada erraldoi bat, egunean bost aldiz, lau orduro. Maite zaitugu!

Lagunak



## BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera eta Aiaraaldea.eus atarian plazaratuko dugu. maiatzaren 6an argitaratuko dugu hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak


### SUDOKU ZAILA

	7	9						
		6					1	2
				7	1			
		2			6			
3				4				
5	4			2	8			9
	3			5				
2				3				9
			4			6	5	


### SUDOKU ERRAZA

			5	3				
		4	8	9		5	3	
						8	9	2
8	7							
		3	6	8		4		
		2	9		3			
9	3				8			6
				2			7	8
7		8	1	6	5	3	4	

### RETI MATEA



### ANDERSEN MATEA



Zuriek jokatzeko dute eta mate egiten dute.

**Amurrioko Xake Taldea**

### DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: [www.aiaraldea.eus/denborapasak](http://www.aiaraldea.eus/denborapasak)

## Zozketa



## Porrotx eta Marimototsen 'Amazonia gara' ikuskizunerako sarrerak zozkatuko ditu Aiaraaldea



Parte hartu!

**Maiatzaren 22an Amurrio Antzokian eskianiko duten 'Amazonia gara' ikuskizunaz gozatzeko hiru sarrera bikoitzen zozketa**

Zozketaren data: Apirilak 1, 14:00etan

## Herriko plaza

### Boluntarioen Txokoa

Dozenaka inurriren lan ikusezin eta isilari esker egiten du aurrera Komunikabideak. Badira hamabostkariak euren auzoan banatzen dituztenak. Badira argazkiak bidali eta albisteen berri ematen dutenak. Guztiak dira ezinbestekoak. Haiei guztiei esker ona eta ahotsa ematea besterik ez dugu.



**MODESTO MARIN**  
KOLABORATZAILEA

# “GAUZA BAT EGITEN BADA ETA EZ BADA ZABALTZEN BADIRUDI EZ DELA GERTATU”

**Argazkilari moduan aritu zara Aiaraldea Komunikabidearekin boluntario lanetan. Nondik datorkizu zaletasun hori?**

Apurka-apurka garatu dut. Txikitan nire aitak bazuen kamara bat, ukitu ezin genuena, eta berak beti egiten zituen argazkiak urtebetetze eta bidaietan, diapositibetan zein Super 8n.

Banuen izeko bat erroilu fotografikoen enpresa batean lan egin zuena, marketinean, eta Nikon bat erosi zuen. Ni argazkiak gordetzen hasi nintzen, eta gero eman nuen saltoa argazkiak egitera. Hortik datorkit dokumentazioarekiko zaletasuna.

**Artxibo lana ere duzu gogoko, beraz.**

Bai. Nik historia ikasi nuen eta gero bibliotekonomia masterra egin nuen. Beti aritu nahiz liburutegian eta artxibategien munduan sartuta. El Correoren dokumentazio zentroan lan egin nuen, eta bertan ikusi nuen lan hori oso gogoko nuela. Iaztik daramat EHUko artxiboan lan egiten.

**Argazkilaritzaren esparruan, Aiarako eta Luiaondoko ekitaldien irudiak plazaratu dituzu batez ere. Zeren arabera zoaz tokietara kamara batekin?**

Beti dago familiari lotuta. Gustatzen zaigu ekitaldi

guztietan parte hartzea, eta beti eramaten dut nire argazki-makina. Gainera, gaur egun oso erraza da argazkiak ateratzea eta di-da batean konpartitzea.

Etxaurren Ikastolako jardueretan hala egiten dut adibidez, krosean, festetan, Olentzeroren kalejiran, Aiarako jaietan, mendi martxetan... gustatzen zait horrelakoei argazkiak egitea. Eta gero, familiarekin eta lagunekin, bidaia edo txangoetan egiten ditut irudiak batez ere.

**Eta Aiaraldea Komunikabidean plazaratzen dituzu argazki horietako asko. Zerk bultzatzen zaitu horretara?**

Plazera da argazkiak egin eta partekatzea. Ekitaldiez gain, pertsonak ere ateratzen ditut egoera ezberdinetan. Drive edo Whatsapp bidez partekatzen ditut normalean.

**Modu irekian beti?**

Bai, beno, ekitaldiaren arabera. Gaur egun zaila da irudiak partekatzea, datuen babeserako legea dela eta. Aurten ikastolako Inauterien jaietan, adibidez, abisatu egin gintuzten ezin zirela argazkiak atera. Gauza horiek kontuan hartu behar dira: ezin dira aurpegiak atera, jende asko dago... horregatik, argazkiak partekatzea konplexua da batzuetan.

**Eta zer ekarpen egin dizu zure argazkiak Aiaraldea Komunikabidean zabaltzeko?**

Nik beti diot gauza bat egiten bada eta ez bada zabaltzen badirudiela ez dela gertatu, nahiz eta jende gutxi bertaratu. Horregatik ematen diet garrantzia argazkiei.

Nik parte hartzen dudana ekitaldietan egiten ditut argazkiak. Ezagutzen dut bertako jendea, eta gauzak asko errazten ditu horrek. Ekitaldi handi batzuetan niri lotsa ematen dit, ez dudalako jendea ezagutzen eta ez dagoelako konfiantza hori. Luiaondo herri txikia da eta ezagutzen dugu.

**Artxibo lanari dagokionez, badago materialik Luiaondon?**

Luiaondon lehen bazegoen argazkilaritza elkarte bat, Hontza izenekoa. Bertan egon nintzen baina pandemiaren geroztik ia ez dabil. Ideia polita zen eta ea denborarekin aukera dagoen berriro abiatzeko, herriko argazki guztiak lortu, identifikatu eta zabaltzeko.

Orain Luiaondoko Administrazio Batzarreko presidentea naiz, eta atera dugu Instagram kontu bat. Horren bidez herriko aspaldiko argazkiak lortu nahi ditut, jendeak ikusteko nola zen Luiaondo antzina, asko aldatu delako.

Hainbat tokitan nago bilatzen: Arabako artxibo historikoan, Kutxako fototekan... Memoria fotografiko hori berreskuratu eta argitaratu nahiko nuke.

**Argitaratzailea:** Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

**Tirada:** 10.000 ale.

**Maiztasuna:** Hamabostekaria

**Lege gordailua:** BI-1230-2013

**Posta elektronikoa:** egunkaria@aiaraldea.eus | agenda@aiaraldea.eus

| erredakzioa@aiaraldea.eus

**Publizitatea:** publizitatea@aiaraldea.eus | 688 62 53 94

**Helbidea:** Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400

**Telefonoak:** 94 656 85 54 | 688 84 81 52

**Webgunea:** www.aiaraldea.eus

**Erredakzioa:** Mainer Ramirez Martin, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte

**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

**ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:** Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea,

Ametz Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias.

**LIZENTZIA:** DOAN ETA LIBRE  
Aiaraldea komunikabideko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraldea Komunikabidea daramatzatenentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



**araba álava**  
foru aldundia diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

# Ko



## Irakurketa gunea

### KAIXO PIZTIOK

**Egilea:** Amandine Piu

**Ilustratzailea:** Itziar Arrizabalaga eta Edurne Lazkano (Aztiri)

**Argitaletxea:** Ttartalo

Haurrak eta natura lantzeko ipuin ederra da. Animaliak eta pertsonen arteko antzekotasunak lantzen dituena. Testuak errimatuak dira musikalidadea emanez ipuinari.



### ALEPOKO ZAZPI PEDIATRAK


**Idazleak:** Txabi Arnal eta Edu Zelaieta

**Ilustratzailea:** Raquel Samatier

**Adina:** 10 urtetik gora

**Argitaletxea:** Elkar

Guda nerabeekin lantzeko narratiba interesgarria da. Zazpi pediatren bizitza eta abenturak kontatzen ditu modu interesgarri batean.



## JOLAS GUNEA

### UDABERRIA

Udaberria etorri da harekin batera egunak luzeagoak dira eta berotasuna nabaritzen hasten da.

#### ZER EGIN UDABERRIAN HAURREKIN?

- Eguzkiak sortzen dituen itzalekin jolastu, itzalak margoztu...
- Barraskiloak bilatzera ibilaldia egin.
- Atera diren loreak ikusi eta kolore ezberdinak topatu.
- Hodei txikiak egoten dira. Lurrean bota eta zerura begiratuta, hodeiak zer izan daitezkeen irudikatu. Hodeiei argazki bat atera eta hodeien formekin forma berriak sortu.
- Euria egiten du udaberrian maiz. Sortzen diren putzuekin gozatu: Hostoekin itsasontziak egin, salto egin, ura saihestu, urbideak egin...
- Naturan dauden putzuetan sortzen den lokatzarekin gozatu. Ikutu, sentitu, eraikuntzak egin, gorputzarekin gozatu...
- Sortu kometa bat eta udaberriko haizearekin hegan egizu.
- Txoriek egin dituzten kabiak topatu eta zenbatu

UDABERRIKO EURIAZ ETA EGUZKIAK GOZATU!



KO  
KO-  
RI  
KO

**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Jairik jai

Hasi da jaien denboraldia, udaberriarekin batera badatoz gurera festak. Auzo eta herri guztietako jaietan egoten da haurrei begirako ekitaldiren bat. Ekitaldi hauek ordea ez dira beti nahi genukeenak bezalakoak.

Alde batetik, haurrei begirako ekintzak egin bai, baina haurrekin kontatzen da ekintza horiek diseinatzerakoan? Edo helduak dira haurrentzako zer den egokiena baloratzen dutenak? Garrantzitsua da haurrei entzutea, beraien beharrak ondo asetu ahal izateko. Ezinbestekoa da haurrek aho-tsa izaten hastea gure auzo eta herrietako jaien antolaketan. Horretarako bideak hamaika izan daitezke, haurren asanblada batetatik abiatuta edo galdeketa txiki bat. Ideialena noski, haurrak izatea beraien ekintzak, proposatu eta kudeatzen dituztenak, baina pausoz pauso ere joan gaitezke haurrak kokatzen gure jaien erdigunean.

Bestetik, zeharka lantzen ditugun balioak daude. Haurren (helduen kasuan ere) kasuan egiten dugun ekintza orok, hezi egiten du. Haurren hazieran klabeak dira beraiei begirako ekintza guztiak eta batez ere egoera ludiko batean gertatzen direnean, hauek baitira beraien memorian itsatsita geratzen direnak. Horregatik ezinbestekoa deritzogu euskara ekintza hauetan erdigunean jartzeari. Bermatu behar dugu haurrei begirako ekintza guztiak euskara hutsez egiten direla eta euskararen biziberritzean kokatuak daudela. Euskararen erabilera eta gaitasunean oinarritutako metodologiak ekintza hauen oinarrian egon behar du. Horregatik, haur eta nerabeen ekintzak egin ditzagun beraiekin batera! Jai euskaldun eta parte hartzaileak amesten jarraiu eta gure egitekoarekin eraikitzen. Parte hartzea ekintzaz ekintza garatzen da, euskara ere hitzez hitz eta ahoz aho zabaltzen da.

**GORA JAI EUSKALDUN ETA PARTE HARTZAI-LEAK!**

## JAIETARAKO TUTUA

#### MATERIALA

- Tutua
- Enbutua
- Koloretako zeloa
- Dekoratzeko materiala (ponpoiak...)
- Kola edo silikona

#### NOLA EGIN?


1. Tutuari eman nahi duzun forma. Horretarako erabili koloretako zeloa. Lotzeko tutuaren kolorea duen zeloa erabiltzen bada estetikoagoa geratuko da.
2. Punta batean jarri enbutu bat eta zeloarekin edo silikonarekin lotu
3. Beste puntan zarata egiteko txistu bat jarri
4. Behin egitura eginda dagoela, dekoratzeko unea da! Koloretako ponpoiak, koloretako zeloak, edo itsaskinak erabili daitezke gure jaietako turuta dekoratzeko

**BUKATZEKO:** Jaietan turuta atera eta alaitu kaleak zure musikarekin



# Bakoitzari berea

Lotu itsaski bakoitzari bere izena.



NEKORA

BUIA

TXANGURROA

IZKIRA

OTARRAINA



**ALdea dago!** Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira.




Bete itzazu hutsuneak URPEKO hitza osatzen duten hizkiak behar bezala ipiniz (U, R, P, E, K eta O). Gogoratu hizkiek behin agertu behar dutela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

# Sudokua




# Margotu

Marraztu zure burua leiho batean, eta nahi duzuna bestean. Ondoren, margotu.



# Soluzioak



# Kontra Mundutik Aiaraidera



## NESTOR CAIZA ANILEMA

JAIOTERRIA  
**RIOBAMBA, EKUADOR (1976)**

BIDAIAREN XEDEA  
**FAMILIA BISITAZERA ETORRI ETA BERTON GERATZEA ERABAKI ZUEN. KALE SALTZAILE GISA ARITZEN DA, BESTEAK BESTE, OTXOMAIO JAIETAN.**

## “OTXOMAIOEK IRAUN BITARTEAN 24 ORDUKO LANA DA KALE SALTZAILEONA”

### Duela 23 urte atera zinen Ekuadorretik, noiz eta nola iritsi zinen Urduñara?

Kasualitatez iritsi nintzen Urduñara. Nire emaztearen senide ugari bizi izan dira hemen urte luzez. Bisitan etorri ginen behin eta geratzea erabaki genuen. Otxomaio jaietan iritsi ginen hain justu, 2010ean. Geroztik hemen geratu gara.

### Nolakoa da zure eguneroko bizitza bertonean?

Ni, egia esan, gustura bizi naiz. Euskal Herriko klima eta ingurua gogoko dut. Oso berdea da. Kalea atera eta segituan zaude landa-eremuan. Alacanten egon nintzen denboraldi batez, eta bertan oso txarto pasatu nuen; egundoko beroa egiten zuen udan.

### Kale saltzailea zara zu.

Hala da bai. Merkatuetan, azoketan eta jaietan postua jartzen dut. Badira 16 urte honetan hasi nintzela, nire jardun bakarra da.

Kale saltzaile bakoitzak baditu bere ibilbideak. Nik Euskal Herriari, Katalunian, Teruelen, Gaztela Leonen eta Kantabrian jartzen dut postua. Merkatuei dagokienez, esaterako, Miranda de Ebron jartzen dut arropa postua astero-astero. Euskal Herriari, aldiz, jai eta azoka egunetan jartzen dut postua soilik. Gustatuko litzaidake bertoko merkatuen batean postua jartzeko aukera izatea, baina oraindik ez dut lortu.

Kale saltzaile gehienak autonomoak gara; gure kabuz egiten dugulan, ez hirugarren pertsona batzuentzat. Jendearen uste orokorraren kontra zergak ordaintzen ditugu.

Administrazioak, ordea, oso gutxi laguntzen gaitu. Eskertuko nuke aholkularitza eta zaintza erakundeen partetik. Azken finean, kontu burokratiko askori egin behar diogu aurre: postua jartzeko baimenak tramitatu, Ticket Bai sistema erabili...

### Otxomaioetan jarri izan duzu postua.

2011z geroztik urtero-urtero jarri izan dut postua Otxomaioetan, gehienetan Aduanaren atzeko kale kantoian. Esan beharra dut, inguruko beste udalerrri batzuekin alderatuta, Otxomaioetan postua jartzea oso garestia dela. Postuen hurrenkera, gainera, zozketa bidez egiten da, eta gerta daiteke zuk lau metroko postu bat eskatzea eta sei metrokoa esleitzea.

### Nolakoa da jaietan kale saltzaile aritzea?

Geroz eta gatazkatsuagoak dira festak. Azken urteetan geroz eta oldarkorragoa da zenbait jenderen jarrera kale saltzaileon aurka. Otxomaio jaietan ere bai. Lehen adiskidetsuagoa zen giroa. Zorionez oraindik errespetua da nagusi, gure seme-alabak herriari errotuta daude eta horrek asko errazten du gure jarduna.

Askotan jasan ditugu erasoak,

lapurretak postuetan... Festek iraun bitartean 24 orduko lana da gurea, etengabeko ardura eta kezka. Gaueko ordu biak arte gaude postuan, behin itxita ez da gure jarduna amaitzen. Giroa baretu arte inguruan geratzen gara, goizaldeko zazpietan izaten da hori. Atsedean txiki bat eta 11:00etan berriro ere gaude salmentan murgilduta. Askotan beste herri batzuetako merkatuekin uztartu behar dugu jaietako salmenta. Otxomaioetan, esaterako, Mirandara joan beharko naiz ere.

### Lan oso sakrifkatua da.

Odolean daramagu salmenta. Jendaurrera atera eta gure produktuak saltzea da gure pasioa. Eguneroko borroka da.

Askok galdetzen didate ea zergatik ez naizen kale salmentatik kitzatzen. Niri ordea, askatasuna ematen dit. Asteburuetan egiten dut lan eta asteko gainerako egunak nire seme-alabekin egotera dedikatu dezaket. Hori da asebe-

## EKUADOR



### DESKRIBAPENA

Hego Amerika ipar-mendebaldeko estatua da, Ozeano Barearen ertzean dagoena. Iparraldeko Andeek iparraldetik hegoaldera zeharkatzen dute herrialdea. Sumendizko mendilerroa da: 70 sumendi daude, Chimborazo da garaiena.

### AZALERA

283.561 kilometro koadro.

### BIZTANLEAK

18,24 milioi biztanle.

### HIZKUNTZAK

Gaztelania, kitxua, shuarrera (ofizialak); kofan, huao terero eta beste zenbait hizkuntza amerindiar (erabiltzen diren eremuetan, badute ezagutza ofiziala).

tetzen nauena, seme-alabei denbora dedikatzea.

### Komunitateekuardortar sendoa dago Urduñan, asko babes-ten duzue elkar?

Komunitate hori ez da duela urte batzuk zena, baina indartsua da oraindik bai. Atsegin da norekin hitz egin izatea. Boleibol kantxa bat dago industriagunean, eta hori izaten da gure topalekua.

### Hiru seme-alaba dituzu. Nabari duzu ari direla Urduñan sustraitzen?

Bi seme-alaba txikiak bai, argi eta garbi. Eskolan ikasten ari dira eta badute euren lagun taldetxoak. Nagusia zazpi urte zituela iritsi zen Urduñara, baina ala ere egin du bere bidea.

Oso gustura ikusten ditut. Nire seme-alabak dira hona lotzen nauen gauzarik garrantzitsuenak, bestela baliteke Ekuadorra itzuli izana.